



uk

52. zenbakia / 2003 azaroak 16

ARGITARATZAILEA: Boluntzarreta
HELBIBIDEA: Arnezi 6, 4. solairua, 5. bulegoa 48990 GETXO
e-mail: ukaldizkaria@telefonica.net / Posta Kutxa 171
Tel: 94 491 13 37 / Fax: 94 491 58 31
ZUZENDARIA: Jokin Aspuru
ERREDAKZIOA: Unai Brea, Jon Urresti, Eunat Serrano
FOTOGRAFIA: Asier Mentxaka
TESTUEN ORRAZKETA: Xabier Bilbao
KOLABORATZAILEAK: Urtzi Iglesias, Bittor Egurrola, Itsaso Arana, Gaizka Escudero, Xabier Bilbao, Algotako Bertsolari Eskola, Iker Merchán, Esti Ezkerra, Nagore Etxebarri, Oskar Fernández, Josu Etxeola, Iratxe Agirre, Edurne Ugarte, Xabier Buenetxea, Patxi Diaz, Gonzalo Iribarregaray, Berbets Erandion Euskaraz eta Bizarra Lepoan Euskara Elkartea
MARRAZKILARIAK: Dogan Gozel, Mixelko Uranga
PUBLIZITATEA eta SUSTAPENA: Zuriñe Martínez (94 491 13 37)
HARREMANAK: Gorka Onueta
FILMAZIOA: Argia / Inprimategia: GESTINGRAF
LEGE GORDAILUA: BI-1878-00
ISSN: 1576-6799

Osorik edo zatiz, makinaz zein informatikaz kopiaetzea, baimen barik, erabat galarazink dago

© Boluntzarreta

Aldizkari hau Euskal Herriko herri aldizkari eta euskara elkarteen Topaguneko partaideia da



Aldizkari honek Bizarra Lepoan Euskara Elkartearen dirulaguntza jasotzen du



TOPAGUNEa



GETXOKO UDALA

Aldizkari honek Getxoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Leioako Udala

Aldizkari honek Leioako Udaleko Euskara Zerbitzuiko dirulaguntza jaso du



BERANGOKO UDALA

Aldizkari honek Berangoko Udalaren dirulaguntza jaso du



Erandioko Udala

Aldizkari honek Erandioko Udalaren dirulaguntza jasotzen du



Erandioko Udala

Aldizkari honek Erandioko Berbets Euskaraz elkartearen laguntza jasotzen du



Bizkaiko Foru Aldundia

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntza jaso du

UK

Behar beharrezkoak ditugu zuen dirulaguntza!

BBK2095 0121 10 91 02483676

Boluntzarreta

gugeu

Euskara, plaza guztietara

Antton Olariaga marrazkilariori egindako elkarrizketa dakar, besteak beste, UK honek. Olariaga, egunero Zakilixuten bidez denoi irribarre bat oparitzeaz gain, Zazpiak Batman taldetxoan dabil azken boladan. Hein batean, euskara hankamotz dabilen hainbat esparrutan (tradizioz, ohituraz, edo auskalo zergatik), eta umorea arma dutela, gure hizkuntzarako baliabideak proposatzean datza Zazpiak Batman-en lana. Eta horrek gai sakona ekarri digu gogora: euskararen normalizazioa.

Ez da denbora luzea Eusko Jaurlaritzaren III. Inkesta Soziolinguistikoaren emaitzak plazaratu zirela. Ezagutzaz egiten da berba hor, eta erabileraz ere bai. Badago hirugarren arlo bat, hizkuntzaren egoeraz jarduteko ezinbestekoa: hiztunak zazpi mila edo zazpi milioi izan, hizkuntzak berak daukan osasuna. Zenbat arlotara ez da oraindik ailegatu euskara? Zenbait gauzaz berba egiteko garaian, euskaldun gehienok estu gabilta, baliabide falta izugarria dugulako. Eta Olariagak dioskun bezala, ez da hizkuntzak baliabide horiek eskaintzen ez dizkigulako, guk non bilatu ez dakigulako baizik. Esan beharrik ez dago egoera horren jatorrian euskarak inguruko erdara handiekiko bizi duen menpekotasuna dagoela.

Euskara normalizatzea ez da zenbaki kontu hutsa (hori ere bada noski). Hiztun gehiago ez eze, hobeak ere behar ditu gure berbakera zahar honek. Erdara etengabe makulu modura erabili barik, edozertaz berba egiteko gauza izango diren hiztunak. Guztiona da erronka. Erronka gogorra beharbada, baina ederra aldi berean. Ekin.

UKko lantaldea

gutunak

Atal honetan irakurleen iritziak, eskaerak, gutunak argitaratu nahi ditugu. Zuon testuak bialtzeko: aldizkaria@euskalnet.net • Faxe: 94 491 58 31

goierritarrak



Goizero >>>>> berria



AREETAKO XAKE PLAZA, 2003KO AZAROA

Gaztaina-saltzaile anonimoa / Argazkigintzaren kontuak dira: gaua dela, flash-ik ez dagoela, diafragma ez dakigu zenbat denbora egon behar duela zabalik, mugitzen diren elementuak ez direla erretratuan “izoztuta” gelditzen... Horrelako eta antzerako azalpen ulertezinak (guretzako behintzat) eman dizkigu gure argazkilari prestuak goian ikus dezakezuen irudi bitxia erredakziora ekarri duenean. Eta hala, flash, diafragma, esposizio eta enparauen elkarketak aurpegibako gizaki bihurtu du berez Areetako gaztaina-saltzaile arrunta besterik ez zena. Misterio apur bat ere badauka kontuak. / Argazkia: Asier Mentxaka

photoshop > Giocondaren begira



aldizkaria etxean
jaso nahi baduzu

94 491 13 37

UK Urbe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa
Amezti 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31

Iritzia

Getxon ezker abertzalea legez kanpo utzi izanak eragiten dituen ondorioei buruzko gogoeta hau jaso dugu

Ondorioak

Getxo Biziaren aldeko botoak baliogabetzat joko zituztela jakin arren, maiatzaren 25eko hauteskundeetan 2.756 getoztarrek herri plataformaren alde bozkatu zuten. Horrek zinegotzi bat esan nahi du, aitortu ez zaion zinegotzia, eta indarrak nola dauden banatuta kontuan hartuz hainbat kasutan erabakitzaile izango zena.

Badirudi, baina, ez dela ezer gertatu, badirudi gaur egun daukagun udala guztiz demokratikoa dela, jokatu behintzat horrela jokatzten du. Eta horregatik, ukatze horren ondorioak orain artean

«**Getxo Biziaren aldeko botoak baliogabetzat joko zituztela jakin arren, maiatzaren 25eko hauteskundeetan 2.756 getoztarrek herri plataformaren alde bozkatu zuten.**»

eta zerga berriak onartu ziren behin behingoz. Bataz beste %5,9ko igoera izan dute, zabor bilketaren gainekoak, esaterako, %30ekoa. Horretarako gutxienez 13 boto behar ziren. Getxo Biziari dagokion zinegotzia aitortu baliote udal gobernuak ez zituen 13 botoak izango eta ondorioz gure tasa eta zergek ez zuten halako igoerarik izango.

Urriaren 31ko osoko bilkuran, berriz, “Federación Española de Municipios y Provincias” delakoan sartzeko erabakia hartu zen PP, PSE-EE eta EB alderdien botoez. Horretarako gutxienez 13 boto behar ziren. Getxo Biziari dagokion zinegotzia aitortu baliote, oposizioan dauden PP eta PSE-EE alderdien botoak eta udal gobernuan dagoen EB alderdiaren botoak ez ziren nahiko izango.

Legezkoa, beharbada izango da, baina bidezkoa... Abeslariak, ez dakit Imanol ez ote zen, abesten zuen legez, *baina nola gu eguneroko patxada merkean oso lasai bizi geran...* 4

Josu Esnaola

Getxo Biziak eta berari botoa eman ziotenek baino ez dute nozitu. Irailetik hona, baina, Udalak hartutako zenbait erabaki tarteko, getxoztar guztiok nabaritutako ditugu injustizia horren ondorioak.

Izan ere, irailaren 26ko osoko bilkuran udal tasa



Iraganez doa denbora* beti / ORMAZAKO ZUBIA

* **Denbora:** gauzak gertatzen eta izakiak aldatzen diren bitarte mugagabea.



Txori izenez bataiatu dituzte Getxon eraikitako kale berriok

begizorrotz > txori izenak gure kaleentzat

Jakina da askotan, auzune berriak eraikitzen dituztenean, kaleei ildo jakin baten inguruko izenak ematen zaizkiela. Getxon orain dela gutxi sortutako auzo batean ere antzeko gauza gertatu da: kale guztiek txori izena daukate: Kaioa, Zozoa, Arranoa, Belatsa, Usoa... Aipatzekoa da kale guztien izenak euskaraz baino ez direla agertzen horretarako propio paratzen diren errotuluetan. Dena dela, Posta Konpainiak darabilen eta gure eskuetaraino ailegatu den zerrenda batean gaztelaniazkoak baino ez dira agertzen, eta batzuk nahiko bitxiak direla esan behar dugu. Pentsa, esaterako, zer izan behar den *Pájaro Carpintero* edo *Tordo* kaleetan bizitzea! Auzoari Txorierri izena ematea besterik ez da falta. ^m



Hilaren 20an Brouarden eraiketaren 19 urte beteko dira

bazen > Areeta etxola bat baino ez zenean...

Areetaren sorrera 1865. urtean kokatzen du Valentín Solagaistua *Getxo, historia de sus gentes* liburuaren egileak. Orduan egin zen Txurruka kaia, eta auzoaren sorrera hari lotuta dago guztiz, Solagaistuak dioenez. Hortik ei dator, gainera, bertakoei “muelleko” ezizena emateko ohitura. Eta urte horren aurretik, zer? Bada, nahiko gauza ezaguna da Areeta jaio zen eremua padura handi bat baino ez zela. Ez zegoen huts-hutsik, baina. *“Itsasadarraren ertz honetan ikus zitekeen eraikin bakarra etxola bat zen”*, esan digu Solagaistuak, *“Portugaletara joateko itsasontzi txikia gordetzen zuen etxola alegia”*. Izan ere, Getxo, Leioa, Berango, Sopela eta Urdulizko udaletxeek ontzi hura ipini zuten, euren baserritarrak bendejagaz Portugaletara pasa ahal izan zitezen. Marinel batzuk ziren txaluparen zaindari eta gidari, eta ez zeukaten lan makala, ontzitzoa arraunez mugitu behar zuten-eta. ^m

kale izendegia > Santi Brouard

HASI alderdiko presidente, Herri Batasunako Mahai Nazionaleko kide, Madrilen eta Gasteizen legebiltzarkide, eta Bilboko Udalean alkateorde izan zen Lekeition 1919an jaioetako Santi Brouard politikaria; hala ere, medikuntza zuen bizibide. Valladoliden egin zituen ikasketak, eta amaitu ostean, Bilbora itzuli zen Basurtuko Ospitalean pediatria moduan jarduteko. 1974an, Brouardek erbesterako bidea hartu eta *Apala* ezagutu zuen Iparralden; biek euren ideiak eman zituzten KAS alternatibaren inguruan. Hegoaldera itzuli zenean, ezker abertzalearen berrantolaketan parte hartu zuen, Bilboko kontsultategian beharrean jarraitzen zuen bitartean. Hortxe bertan, GALEko bi mertzenariok hil zuten Santi Brouard 1984ko azaroaren 20an (Francoren heriotzaren urtemugan). Politikari eta mediku honen oroipena bizirik iraun dezan, bere izena ipini zitzaion Erandioko plaza bati. ^m

datua > zenbat behi dauzkagu eskualdean?



Bos taurus espezieko (lagunartean, behi) hainbat ale Gorlizko larre batean

Tradizioz eta ohituraz, nekazaritzan eta abeltzantzan jardun duen eskualdea da gurea. Orain hilabete batzuk kaleratutako erreportajea esan genizuen legez, ordea, gainbehera doa baserri mundua Uribe Kostan. Dena ez da guztiz galdu, hala ere. Oraingoan, gure herrietako behi kopurua zein den jakin gura izan dugu: guztira, 1.723. Behi gehien daukan herria, alboko koadroan ikusiko duzuenez, Leioa da, eta gutxien daukana, zelan ez, gure herririk marinelena: Plentzia. ^m

Behi kopuruak herriz herri

- Barrika69
- Berango151
- Erandio261
- Getxo111
- Gorliz167
- Leioa331
- Lemoiz234
- Plentzia30
- Sopela135
- Urduliz234

gauza > zebra-bidea



Zebra-bide bat Plentzian

Hain gitxi errespetatzen ditugun zebra-bideak dakartzagu oraingoan ataltxo honetara: galtzada gaina marra zuri etenez margotuta adierazten den pasabidea erabiltzen dugu oinezkook kaleetan eta errepideetan alde batetik bestera igarotzeko. Antza, pasabideotatik lehen Inglaterrako hiri baten paratu zuten, 50eko hamarkadan hain zuzen. Harrezkeroztik, zebra-bidearen inguruan hamaika ika-mika piztu duten eta adiskidetu ezinik dabilzan jarrera bi sortu dira: gidari askok diote zebra-bidea oinezkoek erabiltzen duten errepide-zati bat dela; zenbait oinezkok, ordea, uste dute ibilgailu arduragabe mordoxkak erabiltzen dutela espaloia ren zati hori. Zelangura ere (eta batzuei gogorazteko), zebra-bideetan oinezkook daukagu lehen-tasuna. Eta kito. ^m



KURKUDI
LIBURUDE NDA

Euskarazko
irakurgai

Juan Bautista Zabala 8, 48990 ALGORTA
T: 944 913 402

BISITATU GURE DENDA!

MOROTXO



350_{m²}
KIROLERAKO
GUZTIA!!

URIBE KOSTAKO
KIROL
DENDA

TORRENE 4
ALGORTAKO AZOKA
48990 ALGORTA
TF. 94 491 18 82

Joan-etorriko Batzokia

Espainiako Auzitegi Gorenak Algortako Batzokia EAJri atzera emoteko agindu dio Madrilgo Gobernuari, orain dela pare bat aste kaleratutako **sententzia** baten bidez

Espainiako Gerra Zibilean, Estatuak Algortako Batzokia bereganatu zuen, EAJren beste egoitza asko bezala. Orain, Espainiako Auzitegi Gorenak Batzoki hori itzultzeko agindua eman du. UKk gaiaz berba egin du auzian EAJ ordezkatu duen Guillermo Ibarrondo abokatuagaz: berbaldi horren barri, bai eta Batzokiaren historia apur bat ere dakartsuegu hemen.

Algortako Batzokia Gerra Zibilean igaro zen estatuaren eskuetara, baina bereganatze kontu hau urte batzuk lehenago hasi zen, Primo de Riveraren diktadurapean hain zuzen. Garai hartan, Gobernuak “separatismoaren aurkako” hainbat lege jaulki zituen, eta horien arabera Estatuak eskubidea zeukan “batasun nazionala” apurtu guran zebiltzan taldeak legez kanpo utzi eta haien ondasunak bereganatzeko.

Mehatxuaren aurrean, EAJk herrietan elkarte anonimoak sortzea erabaki zuen. Elkarte haiek izango ziren Batzoki eta bestelako egoitzen ugazabak, eta hala, Estatuak ezin izango zuen ezer egin, ezin zuelako ehunka elkarteren kontra jo. Algortan, hain zuzen, Gurutze’ko Etxia elkarteak sortu zen propio horretarako. Hainbat urtez, modu horretan egin zitzaion aurre egoerari, baina gerra etorri zen, eta gerran balio gitixiago dauka legeak.

Francok EAJri ondasunak, eta batez ere Batzokiak, kentzea erabaki zuen, eta horretarako legez kanpo ezarri zituen elkarteok, eta euren jabetzak eskuratu. Hala igaro zen



1936ko gerra eta gero, Estatuak EAJren ondasun guztiak eskuratu zituen

Algortako Batzokia Espainiar estatuaren eskuetara. Gero, ugazabaz ugazaba ibili zen eraikina: 1956an Estatuak Falange-ri emon zion, eta 1971n *Movimiento Nacional* delakoaren jabetza bihurtu zen Batzokia. Franco hil zen, baina Estatuak jarraitu zuen EAJren antzinako egoitzaren jabe.

«Algortan, Gurutze’ko Etxia elkarteak hartu zuen Batzokiaren jabetza»

Orain urte bi, Espainiako Gobernuak erabaki zuen EAJk batzokiak itzultzeko egindako eskaria aintzat ez hartzea. Auzitegi Gorenaren sententziak, ordea, arrazoia emon die jeltzaleei. Auziaz arduratu den Guillermo Ibarrondo abokatuak dios-

kunez, *“Gobernuaren argudioa izan zen Batzokiak ez zirela EAJrenak, herriz herri sortutako elkarteek baizik. Orain frogatu ahal izan da, baina, elkarteok EAJren tresna hutsa besterik ez zirela”*. m

25 URTEZ “OKUPA”

1978ko uztaillean, Algortako EAJko kideek Batzokia izan zena berreskuratu zuten, modurik sinpleenean: bertara sartuz eta hantxe geratuz. Sasoi hartan, ikastetxe bat zegoen eraikinean, eta beraz, “okupazioa” udan egiteak asko erraztu zituen gauzak. Harrezkerotik, taberna eta beste hamaika kontu egokitu dira Batzokian, inongo arazorik gabe baina beti ere egoitza Estatuaren jabetza zela jakiteak ematen duen lasaitasun ezaz. Auzitegi Gorenaren sententziak, azkenik, berezko egoera zena legearen barruan sartu du, 25 urte igaro diren honetan.

Norabide ekimenak lana topatzearen lanak samurtzen ditu



Esperanza Corralek Erromon dagoen zentroaren ardura dauka

1997an ireki zen Erromon dagoen Eskuinaldeko Norabide lan-orientabide zentroa, *“baina aurretik Astrabuduan zegoen”*, diosku Esperanza Corral arduradunak. Caritasek horrelako beste lau zentro dauzka Bizkaian: Sestaon, Barakaldon, Galdakaon eta Bilbon, hain zuzen; *“hortxe bertan zabaldu zen lehenengoa 1989an”*. Erromon 14 bolondres dabilta informazioa eta orientabidea eskaintzen.

Norabideren helburua lana aurkitu ezinik dabiltzan pertsonentzako lanpostua lortzea da: *“Oso egoera larrian eta baztertuak izateko zorian dauden kolektiboakaz jarduten dugu. Orain etorkinak datozkigu gehienbat, baina badatoz familia baten zama daukaten emakumeak ere”*, azaldu digu Esperanza Corralek. Aurreko ikastur-

tean 562 lagun pasa ziren Norabidetik, *“eta aurtun joera bera ikusten dugu”*. Batez ere neskametzan eta pertsonen zainketan topatu zuten beharra 2002an.

Bizkaian dagoen heziketa-eskaintza-aren gaineko aholkuak ere emoten dizkiete langabetuei, *“doakoak izan behar dute, guregana datozenak baliabide ekonomiko giti dauzkate-eta; gainera, halako ikastaro izaten dira gehien eskatzen dizkigutenak”*. Erromoko Norabidek iaiztik dauka lan-poltsa bat; izan ere, langileak behar dituzten eskualdeko empresakaz artekari lanak egiten dituzte: *“Jasotzen ditugun lan-eskaintzak mota askokoak dira, baina denek prestakuntza ertaina edo baxua behar dute”*. m

Harremanetarako: 94 480 01 54

GAZTE INFORMAZIO BULEGOA HONEZKERO ZABALIK DAGO

Algortako Tangora Etxean dagoen Gazte Informazio Bulegoa hilaren 3an zabaldu zuten ofizialki, Getxoko gazteen beharrak asetzeko. Bertan eguneroko bizitzan behar duten informazio guztia aurki dezakete: lana, bekak, aisialdia, etxebizitza, sexualitatea, Europako programak, bidaia, eta txartelen jaulkipenak, besteak beste. Gazte Informazio Bulegoaren ordutegia honokoa da: astelehenetik barikura, 11:00etatik 14:00etara eta 17:00etatik 21:00etara; zapatuetan, berriz, 10:00etatik 14:00etara irekiko ditu ateak.

Harremanetarako: 94 491 01 14



Tangora Etxean dago informazio bulegoa

GETXO ESPAINIAKO UDALERRIEN ETA PROBINTZIEN FEDERAZIOAN

Urriaren 31ko udalbatzan PPK aurkeztu zuen mozioa onartu zenez gero, Getxo Espainiako Udalerrien eta Probintzien Federazioko (EUPF) partaide izango da; PSE-EEko eta EB-IUko zinegotziek ere aldeko botoa emon zioten proposamenari. EAJk eta EAK, berriz, ez zuten mozioagaz bat egin, Eudel onartzen dutelako Euskal Udalerrien Federaziotzat. Alderdi Popularrak EUPFn sartzeak ekarriko ei dituen onurak aldarrikatu zituen; dioenez, Getxok zenbait diru-laguntza jasoko luke ingurumenerako edo garraioetarako, adibidez. Alderdi abertzaleek, ordea, ez dute uste laguntza horiek gauzatuko direnik, eta txartzat jo dute Getxo federazio horretan sartzea.

ADITUAK GARA PINTXO ETA

BoKATA BEROETAN!!!!

BASAGOITI ETORBIDEA 51
ALGORTA

Iker Fuentes

Europako surf txapeldunorde berria

Iker Fuentes, nazioarte mailan daukagun surflaririk onenetarikoa, Lanzarot-en egin den Europako Zirkuituaren azkenengo proban parte hartu du, eta finalerdietan jausi arren, bigarren tokia eskuratu du azkenean. Beraz, eta kontinente-ko txapeldunordea izateaz gain, Ikerrek wildcard tokia beteko du 2004an, Europan antolatzen diren 4 eta 6 izar arteko WQS guztietan. Duda barik, lorpen honek amaiera ezin hobea eman dio urte bikain bati. Gainera, Iker Fuentes bezalako kirolariei esker, Euskadi surf potentziarik garrantzitsuenetarikoa da Europan. ^m



SAHARAREN ALDEKO JAIALDIA HILAREN 22AN IZANGO DA

Aurreko UKn jakinarazi genizuen Atfal elkarteak eta Getxoko Udalak antolatutako Sahararen Aldeko Eguna hilaren 15ean izango zela, baina azkenean, hilaren 22an izango da, Algortako Geltokiko plazan (lekua ez da aldatu). Zapatu horretako goiz osoa iraungo duen jaialdian Sahararik ekarritako *jaima* paratuko dute lehen aldiz; barruan hainbat ekitalditan parte hartzeko aukera egongo da. Bestalde, Udalak 18.000 euroko diru-laguntza emon dio Saharako Errepublikari Arabiar Demokratikoko Lagunen Elkarteari kamioi bat eta atoi-erdi bat erosteko, eta errefuxiatuen kanpamentuetara bidaltzeko.

José Javier Losantos Omar > arbitroa

“Partida batek esku artetik ihes egitea gitxitan gertatu zait”



Argazkian, José Javier Losantos Omar

1996an egin zuen debuta Lehen Mailan; harrezkeroztik, ehun partidabaino gehiagotan izan da epaile. Bilbotarra jaiotzez, Losantos Omarrek zazpi urte daroaz Getxon bizitzen; abokatua da lanbidez, eta Leioako campusean dauka bulegoa. Horretaz gain, futbolari ohi hau barazkijalea ere bada.

—Zelako jokalaria izan zinen gazte denboran?
—Teknikoki ona, ezkertia izanik, baina ez nintzen azkarra. Deustun, Bermeon eta Lutxanan jokatu nuen; Lezaman ere ibili nintzen hiru urtez, baina han —badakizu—asko gara deituak, gutxi ordea, aukeratuak. —**Eta baloia utzi zenuen txilibitua hartzeko...**
—Zori hutsa izan zen. Ni umeak entrenatzen nenbilen Deustuko La Salle ikastetxean, eta Arbitroen Elkargora joateko esan ziguten araudia ikasteko. Han konbentzitu ninduten, eta areto-futbolean hasi nintzen. Egia esanda erabakia hartzea kosta zitzaidan, baina erregionaleko mailak oso azkar egin nituen.

—Ez al zarete apur bat masokistak?
—Ba, kirola egiteko modu polita da. Arriskua badago, baina estatistikei begirata, erasoak behingo gertaerak dira. Hogei urtetik gora daroadaz epaile lanetan, eta behin bakarrik jasan dut eraso fisiko bat. Eta gainera ez zen norgehiagoka ofizial batean gertatu.
—Baina batzuetan daukazuen presioa jasanezina da...
—Horregatik Lehen Mailako arbitroek gaitasuna eta nortasun nahikoa eduki behar dute presio handiko uneei eta tirabirei aurre egiteko; presioa jokalaria, entrenatzaile, zale eta komunikabideengandik datorkigu. Inpartzialtasuna, prestakuntza eta zintotasuna ere beharrezkoak dira.

«Behin bakarrik jasan dut eraso fisiko bat»

—Martín Navarrete arbitro ohiak erregularra, oso lasaia eta independentea zarela zioen. Ados zaude?
—Hori esan zuen laguna delako eta alde onei erreparatzen dielako. Badira batzuk, ordea, alde txarrak bakarrik kontuan hartzen dituztenak. Baina arbitro baten jokabidea neurtzeko dena hartu behar da kontuan.
—**Orduan zeintzuk dira zure alde txarrak?**
—Badago autokritika, batez ere, jokaldi zehatzetan. Epaileok badaukagu batzuetan gehiegi puzten dugun ezaugarri bat: burua asko berotzen dugu geure akatsakaz; hau da, txarto pasatzen duzu erratzen zarenean. Alabaina, gitxitan igarri dut partida batek esku artetik ihes egin didala.
—**43 urte daukazu eta Lehen Mailako arbitrorik “zaharrena” zara. Noiz arte jardungo duzu epaile lanetan?**
—Denboraldi hau eta hurrengoa geratzen zaizkit. 45 urte betetzen ditudanean utzi egingo dut, araudiak adin horretan daukalako ipinita muga. ^m

Euskaraz jarduteko

Bosgarren Euskararen Jardunaldiak (lehengo Euskararen Astea) **azaroaren 23an** hasiko dira; aurtengoetan, gauza berri ugari egongo da gainera



Jadunaldiok iragartzen dituen kartela
izana: hurrengo UKn egingo dugu berba zabalago horretaz.
Jardunaldien “ohiko” ekitaldiak azaroaren 23an hasi eta abenduaren 5a arte iraungo dute. “*Sektore eta adin guztientzat egin dira*”, dio Arakamak, “*merkatuan dauden gauza berriak ekartzen saiatzen gara. Antzerkia, musika, bertsolaritza, kirola... denetik*”. Aurtengo berrikuntza modura, San Nikolas plaza (ekitaldi asko han egingo dira) estalita egongo dela azpimaratu du Arakamak. ^m

baina, berezia izango dira, Udaletxeko Euskara Zerbitzuko Joxi Arakamak esan digunaren arabera: “*Aurten ziklo txiki bat gaineratu nahi izan diegu ohiko jardunaldi-eci. Hain zuen, euskararen egoeraz jarduteko hiru jardunaldi gehiago antolatu ditugu*”.

Hainbat arrazoi elkartu dira ohiko egitarauari aipatutako zikloa eransteke. Batetik, Eusko Jaurlaritzaren III. Inkesta Soziolinguistikoa kaleratu berri izana; bestetik, Getxon euskararen egoera aztertzeke egin zen ikerketatik hamargarren urte bete

ZENBAIT EKITALDI

- **Zaharregia, txikiegia agian.** Euskararen gaineko literatura-musika lan arrakastatsua, azaroaren 28an, Getxo Antzokian, 20:00etan.
- **Berto-pilota.** Pilota partidua berezia, botilleroak Etxahun Lekue eta Fredi Paia bertsolariak izango dira eta; lehia bikoitza, beraz, pilotalekuan. Azaroaren 29an, San Nikolas plazan, 19:30ean.

OHARRA: Azaroaren 23tik 30era bitarteko ekitaldi guztien berri agendan topatuko duzue (23. orrialdea).

BASERRITIK PLAZARA AZOKA ALGORTAN

Azaroaren 15ean eta 16an, *Baserritik Plazara* azokak Algortako erdiguneko hainbat kale hartuko ditu. Bizkaimendik –Bizkaiko Mendiko Nekazaritza Elkarteek, Bizkaiko baserrigunea ezagutzera ematea da. Hala, abereen eta nekazaritza-produktuen erakusketa egingo da, eta artisautzak eta herri kirolak ere edukiko dute lekurik. Aipatzekoa da Euskal Herriko harrijasotzaile eta aizkolari onenak edukiko ditugula berton, eta baita txakolia dastatzen ikasteko gune bat ere, Metro Geltokiko Plazan.



Iazko azokan giro ederra egon zen

GKE-EN AZOKA

Azaroaren 23an, Algortako Geltokiko Plazan, Getxotik Mundura, Gubernuz Kanpoko Erakundeek (GKEen) seigarren azoka egingo da. Udaletxeak azaldu duenez, udalerrian lankidetzaren arloan egiten diren ekintzarik nabarmenenak erakustea da helburua. “Iaz Getxon onartu diren proiektuak izango dira erakusgai”, esan digute. “*Zelanbait, diru publikoa zelan erabiltzen den erakusteko modu bat ere bada*”. 10:00etatik 15:00etara, 18 GKEren erakuslekuak egongo dira azokan, eta horregaz batera kale antzerkia, jolasak e.a.

BEHIN BATEAN

LIBURUDENDA

Kasune, 24 ALGORTA
Tf. eta Faxe: 94 430 74 03

Musika garaikidea gozagari Leioan

Hilaren 24tik 28ra bitartean egingo da Leioako XIII. Musika Garaikide Zikloa. Bost egunez, Euskal Herriko eta atzerriko musikariek euren doinuak eskainiko dizkiete Leioako Kontserbatorioko Entzungelara hurbiltzen direnei. Hain zuzen, Kontserbatorioko Orkestrak irekiko ditu jardunaldiak, astelehen 24an. Ondorengo egunetan, Flautus Trio (argentinarrak, frantziarrak eta nikaraguar batek osatua), nazioarteko hainbat musikaririk osatutako soka-tresnen boskote bat, Delitiae Musicae flauta eta piano bikotea eta Andrzej Olejniczak Quartet izango dira ikus eta, batez ere, entzungai. Kontzertu guztiak arratsaldeko 8:00etan hasiko dira. ^m

Kontzertuak Leioako Kontserbatorioan egingo dira



Kultur etxearen eraikitze lanak aurrera doaz

Diru gitxiago Madrildik Espainiako Sustapen Ministerioak Kultur Egoitza berrirako diru-laguntza murriztu du erabat

Oraindik eraikitzen dabilzan Leioako Kultur Egoitza berriak lehen zailtasunakaz egin du topo. Jakin ahal izan denez, Udaletxeak Espainiako Sustapen Ministerioagaz adostutako diru-laguntza modu izugarrian murriztu da 2003 honetan. Hain zuzen, urte honetarako hitz emandako 600.000 inguru euroatik, 90.000 baino ez ditu emango Alvarez-Cascosek zuzentzen duen ministerioak.

Iazko irailean, Leioako Udalak eta Sustapen Ministerioak protokolo bat izenpetu zuten Kultur Egoitzaren finantziorako; horren arabera, Ministerioak hiru urtean zehar 1.807.000 euro emateko kon-

promisoa hartu zuen. Iaz ez zen arazorik egon, eta Udalak kopuru horren herena jaso zuen, baina aurten hitz emandakoaren seiren bat baino ez da jaso. Gainera, datorren urtekoa ere ez da ziurtatu.

Udaletxeko iturriek adierazi dutenez, EAJ eta PPko zuzendaritza-taldeak harremanean jarri dira arazoari irtenbidea eman nahian. *“Bide politikoak jorratzen gabiltza eta itxaropena daukagu fruitua emago dutela”*, esan dute Udaletxetik. Ministerioak bere garaian agindutako dirua ailegatuko ez balitz, Udaletxea mailegua eskatzera edo beste zeregin batzuetarako gordetako dirua erabiltzera behartuta egongo litzateke. ^m

Herriko jagoleak



Hamar zaintzale dabilza Leioako kaleetan

Bosgarren urtez, Leioak Hiriko Zaintzailtza Zerbitzu bat dauka. Aurten, gainera, berrikuntza batez: Udaletxeak andrazko langabetuei beharra emateko ipini zuen plana abian, baina orain, lehenengoz, gizonak ere badabilza kaleetan zelatari.

Guztira, sei emakumezko eta lau gizonetzko dabilza, bikoteka, Leioako kaleetan hainbat konturi adi. Horien artean, herritarren segurtasunari dagozkionak: istilu, lapurreta, eraso, istripu eta bestelako gorabeheren berri emango diote Udaltzaingoiari, ikusiz gero.

Horrez gain, herritarrek gizabidezko jarduerak izan ditzaten ahaleginduko di-

ra hamar zaintzaileak. Horretarako, euren zeregina *“ez da isunak jartzea”* edo *“ekintzak gaitzestea”*, Udaletxeak UKri bialdu dion txostenean adierazten denez, *“konbentzitzea eta sentibilizatzea”* baizik.

Ikastetxeen inguruan segurtasuna bermatzea, txarto aparkatutako ibilgailuetan oharrak jartzea, oinezkoentzako pasaguneak errespetatzeko kanpainak egitea... horiek dira zaintzaileen arduretako batzuk. Euren lan-esparrua zabala goa bada ere, trafiko-arazoek leku garrantzitsua edukiko dute jagoleen zereginetan, azken urteotan gero eta gehiago daude-eta Leioan. ^m

GAZTETAN LEHIAKETAREN SARIAK EMAN DIRA

Joan den urriaren 31n banatu ziren laugarren *Gaztetan* narrazio lehiaketaren sariak. Guztira, bederatz lagunek jaso dute sariren bat gero eta partehartze handiagoa daukan lehiaketa honetan. Aipatzekoa da, gainera, igorritako lanak ere gero eta urrunagotik datozela. Aurten aurkeztutako 109 narrazioetatik, esaterako, bat Argentinatik etorri da eta beste bat Estatu Batuetatik. Gainerakoak Estatu Espainiarreko leku askotatik ailegatu dira Leioara. Iaz bezala, Andrés Hernández leioaztarrak lehen saria eskuratu zuen bere multzoan (31 eta 55 urte bitartekoenean hain zuzen), oraingoan *Memorias de luna y celofán* lanari esker.

ETXETKO?ELEKTROTRESNEN?KONPON -
Lacofris,s.L. SERVITEC
¥ MARKA GUZTIAK
¥ 24 ORDUTAN ERANTZUNA
¥ 3 HILABETEKO GARANTIA
¥ 25 URTEZ ZURE ZERBITZUA
& 94 430 52 00 Kasune, 18 • ALGORTA

etorri eta ikusi!!

ORIXA

liburudenda

Alangoeta 8 (Euskal Herria kalearekin bat)
Tfn.: 94 491 23 79
Algorta

BEROGAILU ETA ITUR -

HIRURAK

Sarrikobaso 15

T: 430 53

amesti 7sl

[eraikuntzak]
[etxeetako berrikuntzak]
[gremioen koordinaketa]

Kasune 9 • Tel./Fax: 94 431 98 06
48990 ALGORTA

Astrabuduan euskara ikasten

Euskaltegi askotan ikasle kopuruak behera egin badu ere, Astrabuduan gora egin duela eta bertan izan gara talde guztiz desberdin birekin. Batetik, tituluaren bila dabiltzan 18 eta 35 urte bitarteko neska mutilak; bestetik, gehienbat merkataritzan lan egiten duten 27 eta 55 urte arteko emakumezkoak, euskaraz lehenengo pausuak ematen hasi direnak.

EGA lortzea amets

Iratxe, Gorka, Santi, Markos, Nekane, Leire eta Gabriel aurkitu ditugu Luisen klasean, EGA prestatzeko ikastaroan. Orain arte, bakoitzak bere ibilbidea egin du euskaraz jabetzeko, eta orain, EGA titulua lortzea dute asmo, amets eta desio.

Santi 15 urte zituela hasi zen euskara ikasten Erandioko Udal Euskaltegian. Gero Leioan beste urte bi egin ondoren, euskarazko eskolak apur bat albo batera utzi zituen. Orain dela urte bi ekin zion berriz euskara lantzeari, eta tituluaren bila doa oraingoan.

Nekane batxilergoa euskaraz egin ondoren Unibertsitatean erdaraz hasi ditu ikasketak, baina ez du euskara maila galdu nahi.

Bakoitzak bere historia du. Guztiek piztua dute ikasteko grina eta lana dute pizgarri nagusi. Halere, Euskal Herrian bizi garela eta hori nahikoa pizgarri dela gaineratu du Leirek. Iratxek irakaskuntzan egin nahi du lan eta badaki euskara titulua ezinbestekoa duela. Markosek Osakidetzan du lanpostua, eta batua ikasi ondoren bizkaiera ikasi behar duela dio: *“Ospitalean euskaraz hitz egiten dutenek bizkaieraz egiten dute”*. Gabrielekek dios-



EGA prestatzen ari diren Astrabuduko ikasleak

kunez, *"Ahozkoan proban moldatzen naiz, baina esaldiak berridaztea, hori bai dela zaila"*, eta guztiek esan digute, aho batez, atariko proba dela euren amesgaiztoa. Astero egiten dute atariko proba bat, eskarmentua hartzeko edo, eta batean ondo, bestean baleko eta hurrengoan oso gaizki ateratzen zaienez, ekinen jarraitu beharko dute.

Ikasturtea hasi baino ez da egin, eta bes-
telako ikastaroak baino askoz astunagoa dela

aitortzen dute dagoeneko. Sokaz lotuta ere ez omen doaz klasera, baina EGAKoa giro serio-agoa eta gogorragoa denik ez du ukatzen ezta irakasleak ere. Azterketaren mamua ikasgelako airean dabil dantzan.

Gorka behin aurkeztu zen eta atariko proba gainditzeko puntu bat besterik ez zuen faltan izan. Ea hurrengoan langa gainditzeko adina indar lortzen duten guztiek ere.

Ez etsi, eutsi! _m

Dendariak astiro-astiro

Udal Euskaltegiak eskaintza berezia egin die herriko dendariei euskararen mundura apurka-apurka eta eurei ondo datorkien ordutegian hurre-ratzen joan daitezen. Astrabuduan erantzun ona izan du ekimenak eta hamahiru bat lagun joaten dira eskoletara arratsaldeko 3etatik 4etara. Gaur batzuek huts egin dute eta ez dira argazkian agertuko, baina bai Ana, Miren, Mila, M^a Jose, Angela, Mila (beste bat) Susana, Fuencisla eta Pauli, Susana irakaslearekin batera. Hainbat gremiotakoak batzen dira ikasgelan hasierako ilusioa galtzeko asmo barik: garbitzaile, saltzaile (liburudendan, elektrizitate dendan, kirol dendan, optikan, harategian, opari dendan), ilepaintedaile, bulegari nahiz KZguneko langile, oso gus-tura dabiltzala esan digute. Euskara merkataritzara! ^m

Argazkian, euskara ikasten ari diren Astrabuduko merkatariak



IZATEZKO BIKOTEAK

Gero eta gehiagok ematen dute izena udal erroldan. Gero eta urriago dira ezkontzak gure udalerrian, eta aldi berean, elkarrekin bizi diren bikote gero eta gehiagok ematen dute izena izatezko bikoteen erroldetan, batez ere urreak dauzkatenek, ezkontuta dauden bikoteen abantaila berak jaso ahal izateko.

Erandioko udaletxean 903 bikote daude erroldatuta izatezko bikoteen udal erroldan, baina zenbaki hori gora doa egunero. Beraz, gero eta gehiago dira erroldatuta egoteagatik abantailak jasotzen dituztenak. Errolda horretan bikote homosexualak zein heterosexualak aurkitzen ditugu. Bikote homosexualen kopurua, erroldato dauden bikote guztien artean %20koa da, eta horietatik gehienak gizonetzekoenak dira.

EHNA EGITEKO MAHAIK JARRIKO DITUZTE ERANDION

Euskal naziotasunaren aitortpena jasotzen duen agiria egiteko mahaiak jarriko dituzte azaroaren 15ean Erandioko udaletxeko plazan eta abenduaren 13an Astrabuduko Josu Murueta plazan, goizeko 11:00etatik 14:00etara.

**ASTRABUDUKO FUTBOL CLUB
TALDEKOAK HASERRE
UDALAK EZ DUELAKO BERE
HITZA BETE**

Astrabuduko Futbol Club taldeak ehunka bazkide ditu, hainbat kategoriatan jokatzeko eta txiki geratu zaie oraingo futbol zelaia-
ren inguruko hornidura. Urteak dira futbol zelai berria eta hornikuntza egokiak eskatzeko mobilizazioak egiten hasi zirenetik. Orain dela urte eta erdi inguru proiektu bat hitzartu zuten alderdi politikoekin eta agintean daudenek hauteskunde kanpainako programan ere sartu zuten Astrabuduko futbol zelai berria. Hortaz, lasai ibili dira futbol taldekoak udalean egin beharreko tramitazioa aurrera zihoalakoan, baina zer pausu eman diren eta gaia zertan den galdetu dutenean, dena geldirik dagoela ikusi dute eta berriro hasi dira eurena aldamikatzen.

Fernando Recio > arraunlaria

Itsasoko “dantzaria”

11 urtez Lutxanako arraunlari izatetik Euskadiko piraguistarik onenetarikoa izatera igaro den Fernando Recio erandioztarraren historia



Argazkian, Fernando Recio

Itsasoari begira baino itsasoaren erdian egoteak egiten du zoriotsu Fernando Recio. Ur zabaleko kresalaren zapore gazia ez da, ez, arrotza berarentzat, ez eta olatu-kolpeak eragiten duen zirrara gozoa ere.

Mutikoa baino ez zela, Lutzana Arraun Taldean sartu zen, artean jakin barik hurrengo 11 urteak estropadaz estropada ibiliko zela Kantauri Itsasoan barrena. Orain dela sei urte, aldi horri agur esateko sasoiak heldu zitzaiola iritzi zion, baina ordura arte itsasoarekin bizi izandako amodiozko harremana ahaztu ezinik-edo, piragua bat erosi, eta olaturik zakarrenak lagun, kayak diziplinari ekin zion. *“Itsasoa behar du, eta*

ahal naizen guztietan 'harengand' noa", dio.

Kontua da ezin izan dela geldirik egon harrezkero. 1999 urtean olatuen artean eginiko lagun batzuekin klub bat sortzea erabaki zuen, Itsas-lur deritzona, eta talde honexek antolatatu du aurreko Euskadiko Kayak Txapelketa Muskizeko La Arena hondartzan. Antolatze lanean ez ezik, Fernando Recioek lehian ere esku hartzea deliberatu zuen. Final-laurdenetarako sailkatzea lortu zuen, eta puntu soil batengatik ez zen finalaurrekoetan sartu. Puntuak puntu, Euskadiko hamar piraguiatarik onenen artean da dagoeneko erandioztar hau, Atxabiribil, Laga, Bakio eta Kantabriako zenbait hondartzatan, bereziki, sei urtez olatuekin dantzatzen ibili osten.

Itsasgizon honen hurrengo eronka ez dagokio, ordea, uhinen arteko dantza horri, Lutxana Arraun Taldeari baizik, tostan ez jesartzeak ez du-eta esan nahi arraunketa, bera-
rentzat, iraganeko kontua denik. Orain dela bi urtetik hona klubeko zuzendaritzako kidea da, eta pozarren dago traineruak azken denboral-
dian eman duen mailagatik, onena azken hamarkadan.

Esan bezala, Lutzana Arraun Taldean dihardu, arraunzale gazteei deika orain, datoren urteari begira arraunlari berrien beharrean baitago kluba, hala beheko mailetan nola traineruan: *“Ea gazte jendea animatzen den arraun egiten”*, dio.

Han, Asua ibaiaren bazterrean, zabalik
daude atek. ^m

cianoplan s.a.
Villa de Plentzia 6. zbk
Antigua Cofa, Cagua

global printers

Villa de Plentzia 6. zbk
Antiguo Golf - Getxo
tfnoak: 944 64 90 87
944 64 86 91
<http://www.cianoplan.es>

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

...eta gainera, fitxategien imprimaketa!

Eguzki panelak

Sopelako Institutuan

Eusko Jauriaritzako Hezkuntza Sailagaz eta Energiaren Euskal Erakundegaz (EEE) hitzarmena lortu ostean, Sopelako Institutuak badauzka eguzki panelak. Eraikinaren teilatuan dagoen instalazioak 50 m²ko azalera betetzen du, eta gutxi gorabehera, 5 kilowatteko potentzia dauka. Eguzki panelok EEEK Iberdrolari salduko dizkion 6.000 kw sortuko ei dituzte urtean; hala izatera, 2.400 euroko diru-sarrera ekarriko luke horrek, eta erdia institutuarentzat izango litzateke.

Ekimenak badauka helburu didaktikoa ere, Sopelako Institutuaren ikasleek esperientzia honegaz ikasi eta ondorioak atera ahal izango dituzte-eta; gainera, euskarazko zein gaztelaniazko material osagarria edukiko dute, instalazioaren datu teknikoen jarraipen informatikoa egin ahal izateko. Halaber, ikas-tetxearen fakturazioa eta energi kontsumoa aztertuko dituzte. Bestalde, hitzarmena sinatu duten erakundeek sentsibilizazio-kanpaina egingo dute energiaren erabilpen zentzuzkoaren inguruan. ^m

«50 metro karratuko instalazioak 6.000 kw sortuko ditu urtean»

Auzoa baino gehiago Larrabasterra,

nortasuna daukan gunea



Metroaren geltokitik gertu dagoen Larrabasterrako plaza nagusia

Herria izateko aldarrikapenik ez egon arren, Larrabasterran bizitzeak berezko nortasuna sortarazten du, antza denez; izan ere, auzo horretako 3.000 biztanle inguruei nongoak diren galdetzen badiegu, “*Larrabasterrakoa naiz...*”, erantzungo ligukete gehienek, “*...eta harro nago*”, beste batzuek erantsi ere; gutxiak diote Sopelakoak direla.

Larrabasterrari mugak ipini beharko bagenizkio, lau toki zehatzetan kokatuko genituzke: osasun-zentroa iparraldean, Bilboko metroaren geltokia hegoaldean (honek ondo baino hobeto adierazten du auzoak daukan garrantzia), Urko kirolgunea ekialdean eta Arrietara izeneko urbanizazioa

mendebaldean. Tartean hamaika zerbitzu eta txoko erakargarri egongo lirateke: hondartza, zahar-etxea, institutua, Karmengo baseliza, Gorbeterrota izeneko errota edo txakurrentzako hotela, esaterako; aintzira artifiziala ere egingo ei dute.

Bizitasuna emoten dioten dendak eta tabernak ere badauzka Larrabasterrak; jakina, aukera zabalagoa da Sopelan bertan, baina horrela ‘txikiteroek’, adibidez, ez dute luze eta nekoso egiten den aldapa igo behar. Ezin ditzakegu ahaztu jaiak: uztailaren erdialdean ospatzen diren Karmenak sona dezente daukate eta jendetsuak dira, jai-egitaraua laburra eduki arren. ^m

Aitor Beldarrain > AUSBANCeko ordezkaria

Bankuen gehiegikerien kontra

laz 500 kexa baino gehiago jaso zituen



Aitor Beldarrain, Bilboko Villarías kalean dagoen AUSBANCeko egoitzan

1985ean sortu zen Banku-Zerbitzuen Erabiltzaileen Elkarte (gaztelaniaz, AUSBANC siglakaz da ezagun), finantza-kultura handiagotzeko, eta aurrezki kutxen eta bankuen gehiegikerien inguruan erreklamazioak egiteko. Elkarte horren ordezkaria Euskadin, Errioxan eta Kantabrian Aitor Beldarrain dugu; “*bospasei urte daroadaz AUSBANCeko ordezkari*”, diosku Larrabasterran bizi den 38 urteko abokatu honek.

Iaz 500 kexatik gora jaso zituen, “*komisioen kobrantzaz eta hipoteka-maileguaz izan ziren batez ere*”. Beldarrainen berbetan, “*jendeak nolabaiteko mesfidantza dauka erreklamazioak egiteko orduan; izan ere, 100 kalitetutik bi edo*

hiru bakarrik datozkigu kexak ipintzerá”. BBK eta BBVA dira erreklamazio gehien dauzkaten finantza-erakundeak, “*baina ez besteak baino ‘gaiztoagoak’ direlako, baizik eta merkatu handiagooa daukatelako gurean*”.

Euskadin ‘bankuzaleak’ ei gara, asko erabiltzen ditugu-eta. Horregatik, Aitor Beldarrainek honoko gomendioa utzi gura izan digu: “*Bankuakaz tratua eta berba egiteko aukera daukagu, baina ez dugu egiten; izan ere, eskaintzen diguten guztia txintik esan barik onartzen dugu. Erabiltzaileok merkataritza-harreman handiagooa eduki beharko genuke, eta banku munduan den-dena negoziatu daitekeela jakin*”. ^m

SOPELAKO ZATI BAT HONDURASEN

Hilaren 21ean (barikua), arrastiko 19:00etan eta Udaletxeko atondoan, Sembrando Futuro GKEko zenbait kidek Hondurasen egin duten “Escuela Sopelana” izeneko proiektua aurkeztuko diete herritarrei; sarrera doakoa izango da. Errioxako erakunde horrek Hondurasko Guanchías herrixoan 52 ikaslerentzako eskola bat eraikitzen lagundu zuen, eta han egon zen tartean José M^º Sáez sopeloztarra aurtongo udaberrian (ikus! UK 38 eta 45). Beragaz batera, Iban García nafarra eta Esperanza Martínez errioxarra izango dira aurkezpenean. “Sopelana” izena daukan eskola zelan eraiki zuten azalduko dute 20 minutu inguruko bideo-emonaldi bategaz eta euren berbakaz.

GOIZEAN


Gozoki eta prentsa, gutxi denik ez
Prentsa - Fruiñu lehorak - Aldizkariak - Lixarreiak

Orduña Mendatea 1 Telletxe 13
T: 430 22 13 T: 460 02 88
GETXO ALGORTA

LAIK Taberna


Bentatxu, 2
48600 Sopela
Tlf. 94 676 03 28

4 bide pinturak


Loroño 2 • Tlf/Fax 94 676 29 92 • SOPELA
Iturribarria 3 • Tlf: 94 442 01 55 • BILBO

Loteria Sopela



Iparragirre 6, Sopela

Erosketa etxera eroaten dogu!!


ORDUTEGIA

Lan egun eta zapatuetan: 9:00-14:00 / 17:40-21:00
Domeka eta jai egunetan: 9:00-14:00

Gatzarriñe 5, % 94 676 19 99 LARRABASTERRA



Basurto
Algorta S.L.
altzariak

LEHEN, ORAIN ETA BETI

- 1970az geroztik altzariak diseinatzen.
- Orain ere, armairuak neurrira.
- 200 m²ko erakusketa berria: Telletxe 4 (T: 94 460 71 62)

Zatoz!

Telletxe 15 • Algorta • T: 460 42 44

Naturaren paradisu txikia

Kukullagan, Getxoko mugatik hurrean, **hainbat berezitasun dauzkan basoa** gorde da, sute eta mozketen gainetik

Gure kaleak porlanak hartuta dituen bezala, pinuak eta eukaliptuak bihurtu dira gure mendien ugazaba. Horien artean, hala ere, Berangok badauka urtetan zehar gorde den baso txiki bat. Kukullagan dago, eta berez ibaiertzeko basoa bada ere, badauzka beste baso mota batzuen ezaugarriak, bere kokapen berezia dela eta.

Ia erreka izatera ere ailegatzten ez den Ibotxeren bazter bietan datza Kukullagako basoa, Berangok Getxogaz elkartu gura duen ingurutik Sustatxaraino hedatzen dena. Kanpoko zuhaitzek bereganatutako mendien artean, harribitxia da baso hau. Harribitxi txikia, hori bai, baina badakigu balio gehien daukaten harribitxiak ez direla beti handienak.

Baso honetaz gehiago jakiteko, Patxi Díaz berangoztar biologoarengana jo dugu. Dioskunez, *“Kukullagako basoa ibaiertzeko basoa da teorian”*, hau da, hezetasun handia onartzen duten zuhaitzak dira nagusi bertan, *“batez ere haltzak, hurritzen bat, sahat-sen bat...”*.

Aurrekoa, baina, teoria da, esan dugu-nez. Kukullagan aipatutako zuhaitzak badaude, baina eremuaren berezitasunek



Kukullagako basoaren ikuspegi bat

beste zuhaitz mota batzuk bertara *“hurbiltzea”* eragin dute, Díazek ondo baino hobeto azaldu digunez: *“Malda handia dagoenez, eta errekek berak ur askorik ez daramenez, bestelako espezie batzuk agertzen dira bertan: haritzak, gaztainondoak, gorostiak...”*.

Basoaren ezaugarriak aipagarriena, Díazen ustez, argia lortzeko zuhaitzek egiten duten ahalegina da. Basoa nahiko eremu itxian dago kokatuta, kutxa modu-

ko batean ia-ia, eta horregatik, antza, *“zuhaitzek gorantz jo behar dute argiaren bila. Oso meheak eta oso altuak dira denak”*.

Kukullagako baso estuak (leku batzuetan 50 metro baino gutxiagoko zabalera dauka) sute handi bati egin behar izan zion aurre, orain hamarren bat urte, eta ganora handi barik egindako mozketen ostean. Hala ere, ondo gorde da, zorionez jende gutxi zapaltzen duelako. Oraingoz. ^m

erakusketak

antzerkia

dj.ak

ALGORTA

BAR ESPUELA

ITURRIBIDE

• PINTXO GOZO-GOZOAK

• OSTEGUN KULTURALAK

• ASTEBURUTAN MARTXOLA

• TELEFONA: 944150565

• ITXURALDATURIK HATOR.

ELKARTOKIA ETA GIRO JATORRA

zure publizitatea hemen

zure publizitatea hemen

zure publizitatea hemen

deitu: 94 491 13 37



Itziar Ansoleaga (ezkerrean) eta Susana López (eskuman) urte bi daroez trontzan

Sokatiratik trontzara

Orain sei urte hasi ziren Itziar Ansoleaga eta Susana López sokatiran. Bizitzaren bideek Berangoko Torrekolanda taldera eroan zituzten orain urte bi, eta hango entrenatzailearen bitartez, Zornotzako trontza taldeagaz jarri ziren harremanean. *“Sokatira denboraldia amaituta, ez geneukan zer eginik”*, dioskue, *“horregatik, udan ere kirolen bat egitearren, trontzan hasi ginen”*. Martxotik urrira astean hiru

orduz entrenatzen dira Bizkaian zabal-kunde handia ez daukan kirol honetan: *“Nafarroan eta Gipuzkoan jende gehiago dabil, baina neska gixxi hala ere”*. Ez da ohikoa neskak trontzan ikustea, baina Itziar eta Susana jo ta ke ibili dira aurren, bai eta dozenatik gora erakustaldi egin ere. Diotenez, teknika aldetik ez da oso gatxa, baina fisikoki oso gogorra da, *“sokatira baino askoz gogorragoa”*. ^m

SEI HERRI KULTUR ELKARTEAK XXI. IBILALDI NEURTUA ANTOLATU DU

Datorren azaroaren 16an (domeka) egingo da Sei Herri kultur elkarteak antolatzen duen XXI. Ibilaldi Neurtua. Arduradunek esan digutenez, *“urtero lez ibilbide bi egongo dira, bata umeentzat, zortzi kilometrokoa, eta bestea nagusientzat, hamasei kilometrokoa”*. Ibilbide biak Sei Herri tabernatik abiatuko dira, nagusiena goizeko 9:00etan eta txikiena 9:30ean. Ibilaldiaren osterako hainbat ekitaldi prestatu dute gainera Sei herrikoek. 13:00etan umeentzako jokoak, 14:00etan trikipotea eta 15:00etan doaneko bazkaria. Gerorako, umeentzako bideo emanaldia (16:00etan) iragarri dute, eta sari banaketa, azkenik, 18:00etan egingo da. Umeentzako jokoak, bazkaria eta sari banaketa pilotalekuan egingo dira; bideo-emanaldia, berriz, Kultur Etxean.

Informazio gehiago: 665-70 13 23



Orain dela hiru urte egindako ibilaldi neurtuan parte hartu zuten gazte batzuk

aldai

TAPIZTEGIA

DEKORAZIOA

ERAKUSKETA

ETA TAIERRAK

Basagoiti etorbidea 32

Tf: 460 90 31

48990 ALGORTA

20º ANIVERSARIO URTEURRENA

KLIMATIZAZIO

INGENIARITZA

INSTALAZIOA

MANTENIMENDUA

Otxandategi tar Simon 114

48640 Berango, Bizkaia

tel. 94 668 15 51

Taxa. 94 66829 92

e-mail: vasa@euskalnet.net



TXIBERRI
edantokia
frontoi partikularra

Aita Gotzon 4, URDULIZ
T: 94 676 07 15

BASTARTENA

URDULIZ

Teléfono: 946 761 128



Taberna Berrn


Sarrikobaso 4 -ALGORTA
Tf.: 944 306 493

Ajuria
taberna



Andrés Cortina 2
ALGORTA

JATEKO



jateko

- urdaitegia
- frutadenda
- elikagaiak

Amezti 4 -Tf.: 94 491 06 54
ALGORTA

[herriak]

GORLIZ

15 urte barruko herria “asmatzen”



Gorlizen gaineke hausnarketa egiten dabilta herriko talde ugari

Udaletxeak bultzatuta, Gorlizentzat Hausnarketa Estrategikoa izena daukan proiektua lantzen dabilta azken hilabete-otan. Bilbao Metropoli-30 elkarte publiko-pribatuak dauka plan horren alde teknikoaren ardua, eta horko langilea den Idoia Postigok eman dizkigu argibide gehiago.

“Gure elkarte Bilbo ingurua berpizteko helburuagaz jaio zen, 1991n”, adierazi digu Postigok. “Gorlizeri dagokionez, hamar edo hamabost urte barrunako herriaren diseinu baten bila gabilta, eta horretarako bertoko ikuspegi guztiak elkar ditzake-

en lan taldea osatu da”. Guztira, egitasmoaren lehen faseak hiru batzar edukiko ditu. Dagoeneko lehen biak egin dira, eta honezkero atera dira mahai gainera herriarekiko kezka nagusiak.

Idoia Postigok dioenez, “denetaz hitz egin da, baina gehien aipatu dena -eta hori izango da azken agiriaren oinarria-, jendea herriagaz lotuko duten ekintzak bultzatzeko beharra da. Hondartza eta herriaren arteko lotura sustatu behar da”. Gorliz asko hazi da, eta hausnarketan parte hartzen dabiltzanen iritiz, ez zaio utzi behar lotarako herri hutsa bihurtzen. ^m

BARRIKA

Hainbat mailatako surf ikastaroak

Barrika Surf Taldeko kideek zenbait ikastaro antolatu dute kirol hau ikasi edo tre-bezia hobetu gura dutenentzat. Plentziako hondartzan izango diren eskolok urte osoan luzatuko dira. Ikastaroen salneurriak monitoreak, aseguruak eta behar den tresneria guztia ordainduko du; gainera, ikasleak surf elkartearen kide bihurtuko dira, aurtongo kuota ordaindu barik.

Bestalde, Barrikan erroldatuta dauden partaideek erdia ordainduko dute, ikastaroek Udalaren diru-laguntza daukate-eta. Argibide gehiago gura izanez gero, Udaletxearen beheko solairuko liburutegira joan edo antolatzaileak harremanetan ipintzea besterik ez da behar, 617 467 564 telefonoan edo barrikasurfaldeak@kzgu-nea.net helbidean. ^m

Azaroak 14-30

Zuon ekitaldiak iragartzeko • Posta elektronikoa: aldizkaria@euskalnet.net • Tel.: 94 491 13 37 • Faxa: 94 491 58 31

EUSKARAREN JARDUNALDIAK

GETXO

► **III. Aerobic Maratoia euskaraz.** Aerobic-a, spinning, capoeira, DJak... Andra Mari kiroldegian. Azaroak 23, domeka. 17:00.

► **Euskal produktuen katalogoa eta ludoteka.** Getxoko Kultur Etxean. Azaroaren 25etik abenduaren 5era. 10:00-12:00 eta 17:00-20:00.

► **III. Umore Jardunaldien barruan, Euskaraz lardaxkatzeko manierak hitzaldia.** The Pipers Irish Pub-ean. Azaroak 26, eguaztena. 20:00. Kike Amonarriz, Antton Olariaga, eta Asisko Olariaga hirukote definiezinaren eskutik.

► **Bizikleta euskaraz mahaingurua.** Iban Mayo, Haimar Zubeldia, Agurtzane Elorriaga eta Julián Gorospe. Moderatzailea: Jorge Cerrato. Getxo Antzokian. Azaroak 27, eguena. 19:00.

► **Zaharregia, txikiegia, agian.** Poesia eta musika ikuskizuna. Azaroak 28, barikua. Getxo Antzokian. 20:00. Kirmen Uribe, Mikel Urdangarin, Bingen Mendizabal eta Rafa Ruedaren eskutik.

► **Zirkus-mirkus: Detraka taldea.** San Nikolas plazan. Azaroak 29, zapatua. 19:30.

► **Berto-pilota.** Pilotariak: Martin I-Martin II/Etxebarria-Erauskin. Bertsolariak: Etxahun Lekue eta Fredi Paia. San Nikolas plazan. Azaroak 29, zapatua. 19:30.

► **Kontzertua: Bide Ertzean.** San Nikolas plazan. Azaroak 29, zapatua.

► **Diskotop festa.** San Nikolas plazan. Azaroak 30, domeka. 12:30ean umeentzako jolasak eta dantza festa. 17:00etan karaokea eta top festa.

ANTZERKIA

ERANDIO

► **Globalización.** Lutzanako eskole-tan. Azaroak 15, zapatua. 22:00. *Hortzmuga* taldearen eskutik.

GETXO

► **Buenas intenciones.** Getxo Antzokian. Azaroak 20, eguena. 20:30. *Teatre Lliure* taldearen eskutik.

► **Haraze Aouicha.** Getxo Antzokian. Azaroak 21, barikua. 20:30. *Theatre Tensift* taldearen eskutik. Arabieraz, aldebereko itzulpenagaz.

► **Jesucristo Superstar.** Getxo Antzokian. Azaroak 22, zapatua. 20:00. *Teatro Encrucijada* taldea.



► HITZALDIA ETA BIDEO EMANALDIA

Berria egunkariko langileen hitzaldia

Euskaldunon Egunkaria ordezkatuko duen Berria-ko langileak kazeta berria zertan den azaltzera etorriko dira Algortara. Orain arte emandako pausuak eta aurrerantzean emango direnak mahaigeneratuko dituzte Villamonteko Kultur Etxean. Egunkaria-ren itxierari buruzko bideoa ere ikusi ahal izango da. Bideo honek beste gauza askoren artean, egin diren elkartsunezko agerraldiak jasotzen ditu.

- **Non:** Villamonteko Kultur Etxea, Algorta
- **Noiz:** Azaroak 20, eguaztena • **Ordua:** 19:30

ERAKUSKETAK

GETXO

► **Getxotik mundura.** Erromoko erakustaretoan. Azaroaren 15etik 22ra.

► **Komiki erakusketa.** Algortako erakustaretoan. Azaroaren 25etik abenduaren 13ra.

PLENTZIA

► **Isolda Cruzen margolanak.** Goñi Portalen. Azaroaren 16tik 30era.

MUSIKA

ERANDIO

► **Soul Fingers.** Lutzanako eskole-tan. Azaroak 15, zapatua. 24:00.

GETXO

► **Amaia Arregui eta Gayane Sharluyan.** Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan. Azaroak 14, barikua. 20:00. XVIII. Udazkeneko Kontzertuen barruan.

► **Luis Dámaso, Maite Arruabarrena eta Pedro José**

Rodríguez. Algortako Salbatzaile elizan. Azaroak 18, martitzena. 20:00. XVIII. Udazkeneko Kontzertuen barruan.

► **Euskadiko Orkestra Sinfonikoa.** Zuzendaria: Heinrich Schiff. Sopranoa: Carmen Fuggiss. Algortako Salbatzaile elizan. Azaroak 19, eguaztena. 20:00. XVIII. Udazkeneko Kontzertuen barruan.

► **Alia Música.** Algortako Salbatzaile elizan. Azaroak 20, eguena. 20:00. XVIII. Udazkeneko Kontzertuen barruan.

► **Txinatar Ganbera Orkestra**

Gaztea. Algortako Salbatzaile elizan. Azaroak 21, barikua. 20:00. XVIII. Udazkeneko Kontzertuen barruan.

ZINEMA

GETXO

► **Alianza mortal (film laburra)+ La última noche (film luzea).** Getxo Antzokian. Azaroak 14, barikua. 22:00.

► **Quiero ser como Beckham.** Azaroaren 19an (eguaztena), Getxo Antzokian, eta azaroaren 20an (egue-na), Areetako Gran Cineman. Biak 22:00etan.

► **Pianojolea (euskaraz).** Getxo Antzokian. Azaroak 26, eguaztena. 20:00.

► **El ladrón de orquídeas.** Areetako Gran Cineman. Azaroak 27, eguena. 20:00.

► **Sesión 9.** Getxo Antzokian. Azaroak 28, barikua. 22:00.

plentziapLENTZIA

► **Las hermanas de la magdalena.** Goñi Portalen. Azaroak 14, barikua. 22:00.

► **Some voices.** Goñi Portalen. Azaroak 21, barikua. 22:00.

► **Café de noche.** Goñi Portalen. Azaroak 28, barikua. 22:00.

BESTERIK

GETXO

► **Kontularien kluba.** Algortako Kultur Etxeko Aretok nagusian. Azaroak 14, barikua. 19:00.

► **Euskal dantzak.** Agurra taldearen kalejira, eta ondoren dantzaldia Telletxen. Azaroak 23, domeka. 12:30.

SOPELA

► **Ibilaldiaren aldeko bertso saioa.** Amets Arzallus, Sustrai Colina, Andoni Egaña, Igor Elortza eta Unai Iturriaga. Urko kiroldegian. Azaroak

hamaika bide

San Vicente 2
4. solairua
48001
94 423 75 91

1 Kafe Antzokia Bilbo
2 Kafe Antzokia Ondarroa
3 Ondarroako Arrigorri itsas
ostatu
4 Algara konpartsa
5 Zaparrada Gaztegunea
6 Oigetan Umegunea
7 Elkartaren zerbitzu,
ikaslaro eta tailerrak
8 Bakaikuko elkea
9 Bilbo Hiria irratia 96.0 Fm
10 Zenbat Gara aldizkaria
Gara argitaletxea

zenbat gara
elkartea

hamaika




[albuma]



Arimaren ispilu

Aurpegia ei da arimaren ispilua. Ikasle gazteen kasuan, gainera, karpetak ere halako lana egiten du. Arimaren barrualde sakonak agertzeko ez bada, behintzat norberaren pentsamolde edo zaletasunak aldarrikatzeko balio du paper-zorroak. Aixerrota eta Ander Deuna ikastetxeetan ibili gara ikasleek karpeten estalki lez darabiltzaten irudien bila, eta argi gelditu da nor den nor, UKren zale bat barne.

Argazkiak: **Asier Mentxaka**



[berbetan]

Sortzez Usurbilgoa eta erroldaz Astigarragakoa da Antton Olariaga marrazkilari ezaguna. Orain 30 urte hasi ziren hark egindako lanak argitaratzen, eta denbora tarte horretan atsedean gutxi eman die arkatz eta pintzelei. Zakilixut gogoangarria du sorkuntzarik ezagunena, baina 57 urteko gizon honen uzta Eginen, Egunkarian eta Berrian agertutako komiki-tira ospetsua baino askoz gehiago da, ondo jakina denez. Hamaika libururen azalek, hamaika kartelek, hamaika testu-liburuk dute itsatsita Olariagak hain berezkoa daukan estilo ezaguna.

Antton Olariaga

Eguneroko umore dosia

Testua: **Unai Brea**

—Noiz eta zelan jaio zen Zakilixut? —Eginekin batera, 1977an. Egunkari berriaren proiektua aurkeztu eta tira komikoa egitea eskaini zidaten. Orduan bururatu zitzaidan Zakilixut egitea. Pertsonajea bera, pertsonaje guztien moduan jaio zen. Pentsatu nuen, alde batetik, euskaraz izan behar zela; bestetik, itxurari dagokionez, egunkari baterako zenez, zuri beltzean; ezin zen konplikatua izan; orduan, marradun kamiseta aukeratu nuen. Eta bestaldetik, iruditu zitzaidan sexuaren munduaz gutxi zegoela eginda, eta gogoa eman zidan hortik abiatzeko. —Baita arrakastaz abiatu ere...

—Nik behintzat ez nekien zenbat iraungo zuen. Beharbada 8.000 tiratik gora egin ditut; hori izango da nire zortzimilakoa. Eta konturatu gabe gainera: nik ez nion neure buruari holako helbururik ezarri. —Inoiz pentsatu duzu agortuta dagoela Zakilixut?

—Ez. Eta sekula aspertzen baldin banaiz utzi egingo dut. Nire ustez, inguruak ematen dio bizitzaren pertsonajeari. Ingurua bizirik dagoen bitartean bera ere diberti-

tu egingo da, edo gaizki pasako du.

—Baina ez da erraza izango egunero-egunero komikia asmatzea, hainbeste urtez...

—Tira, zorte handia izan da niretzat aldi berean komikigintza eta liburugintza lantzea. Zorionez, harreman handia izan dut idazleekin, eta beraiegandik asko ikasi dut. Horrek, dudarik gabe, nire ganbara aberastu du eta horri esker adorea eduki dut pertsonaje batekin aurrera segitzeko. Eta gero, egunero irratia edo tele-

“Zakilixuten 8.000tik gora komikiak dira nire zortzimilakoa”

bista pizten dituzula, edo egunkaria zabaltzen duzula, izugarrizko material piloa aurkitzen da.

—Ez dizu beldurrik ematen zure irudia Zakilixutegaz bakarrik lotzeak?

—Ez, inondik inora ez. Jakina, gauza berarekin 26 urtez egunero azaltzen bazara, estatistikaren legeak esaten du azkenean hori zurekin lotuko dela. Baina horrez gain ehunka liburu ilustratu eta diseinatu

ditut, eta ez naiz komikian aritu izan soilik, beste arlo batzuetan ere ibili naiz.

—Umore fineko gizona zara, eta hala-koa da Zakilixut ere. Finegia beharbada. Askotan leporatzen zaizu Zakilixuten komiki batzuk ulertezinak izatea...

—Niri ere gertatzen zait.

—Beste garai batekoak dira Hormasprayko eta Mozorrozko, zeuk erditutako pertsonajeak. Nortzuk ziren horiek?

—Garai hartako egoera politikoari lotutako pertsonajeak ziren. Orduan hasi

ziren alderdi politikoak, eta sigla zopa izugarria zen. Pintadak zeuden, eta giro hura, autonomia, aurreautonomia... halako gauzak zeuden. Garai horretan kokatutako pertsonajeak dira. Hormaspraykok pintadak egiten zituen, era guztietako pintadak. Mozorrozko laser-akui-lu batekin zihoan eta mozorrothu egiten zen.

—Zakilixut ere trantsizioan sortu zen



Azaroaren 26an Getxoko The Pipper's Irish Pub-ean egongo da Antton Olariaga

eta gaur arte iraun du. Aldaketa ugari edukiko zituen urteakaz, ezta?

—Jakina, hori legea da. Okotza luzatu zitzaion eta kilo batzuk ere irabazi ditu. Izaera ere aldatuko zitzaiola pentsatzen dut, nirearekin batera.

—Olariagaren izaera Zakilixuten izaera da orduan?

—Ez, ez. Distantzia egon behar da beti. Etxean badut ispilua eta horrekin nahiko. —Eta nondik datorkio izaera Zakilixuti?

—Autonomoa da. Pertsonaje guztiak autonomoak dira. Berak badu bere bizitza, eta beti kutsatuko zaio egilearen zeozer, dudarik gabe, baina oso astuna izan-

go litzateke hori bai litetaruran, bai komikigintzan, bai zineman. Azken batean, komikigintza zer da ba? Pobreon filmak dira, material gutxirekin egindako

“Azken batean, komikigintza zer da ba? Pobreon filmak dira”

istorioak.

—Orain *Zazpiak Batman-en zabilta*, Asisko Urmenetagaz eta Kike Amonnarrizegaz batera. Zer egiten duzue?

—Hitzaldiak eman. Edo ematen saiatu behintzat. Lehenbizikoa *Euskaraz Dibertitzeko Manerak* izan zen, eta oraingoa *Euskaraz Lardaxkatzeko Manerak*. Ba-

koitzak euskararen arlo bat azaltzen du, berari atentzio eman diona, horrexetarako, euskaraz lardaxkatzeko. Batez ere jende gaztearekin kontaktua lortu dugu, eta materiala jaso dugu gaur egungo komunikatzeko era berriei buruz; azkene-koa segapotoaren hiztegi bat izan da. Ate txiki bat zabaldu dugu, eta hortik aurrera norik bere sormena jar dezala lanean. Guk egin duguna materiala bildu eta eskaini izan da, eta oso ondo pasatu dugu. Hori ere bada gure asmoa.

—Datorren azaroaren 26an *Euskaraz Lardaxkatzeko Manerak* berbaldia ekarriko duzue Getxora. Zer aurkituko du entzuleak?


—Gu euskaraz lardaxkatzeko manerak azaltzen saiatuko gara. Askotan uste dugu euskaraz lardaxkatzeko manerarik ez dagoela, ez dugulako ezagutzen dakiguna. Dagoeneko guk dakiguna, e? Ez gara joan behar beste inora, baizik eta gure ganbaran dagoeneko dauden gauzak erabili. Gainera, jendeak ere parte hartzen du, nahiko interaktiboak gara.

—Zelakoa da zure langela?

—Liburuz inguratuta nago. Haiekin borrokan nabil beti, gero eta gauza gehiago daukat eta dagoeneko ez dakit non sartu. Beti zaharra botatzeko penaz! Nik errespetu handia diet liburuei, beti ikasten da liburuetatik. Gero, betikoa, marrazteko mahaia, tresneria, lapitzak, tintak... eta nire azken urteotako laguna ere, ordena-

gailua. Asko atzeratu nuen ordenagailua erostea, baina gero ikusi dut gauza politak egin daitezkeela berarekin. Hala ere, neure lanerako behar dudana egiten besterik ez dut ikasi. Sekula ez diot uko egin nahi eskuaz eta pintzelaz marrazteak ematen duen plazerarri. Gero bai, ordenagai-luaz moldatzen dut, baina sorreraren unean, eskua, papera, lapitza eta burua. m

Ai, Jaungoikoak!



“Nire erlijio-jarduna ez da asteko ordu batzuetara mugatzen”

Kepa Fernández. Budista Momentua bizi

Orrialde hauetara ekarri ditugunen artean, budismoa da beharbada erlijio-izaera gutxien daukan sinismena. Azken batean, Buda ez da inork ikusi ez duen jainko bat, orain mende mordoa bizi izan zen gizon bat baizik. Hori bai, jarraitzaile ugari duna. Kepa Fernández, Sopelan bizi den 44 urteko bilbotarra, horietako bat dugu: “*Budismoa, batez ere, bizimodu bat da, jardun bat*”, dio, “*nik ZEN budismoa egiten dut, eta hori, azken batean, Budak egin zuen bidea egitea da*”. ZEN budismoaren oinarria hausnarketa da. Hainbat ordu egiten da, jesarrita, ZA-ZEN deritzan eran. Baina hori ez da guztia: “*Ez dut uste nire erlijio-jarduna astean ordu batzuetan egin beharreko zeozertara muga daitekeenik. Aitzitik, etengabe egitekoa da, momentu guztietan, orain eta hemen. ZEN budismoa egitea zera da, azken batean: une jakin batzuetan bakarrik egiten den hausnarketa hori norberaren bizitzaren une guztietan txertatzea*”.

Horrek ez du esan gura, baina, budista baten bizimodua oso desberdina denik: “*Jarrera da desberdina, ez bizimodua. Budismoak garrantzia ematen dio beti adi egoteari, hau da, egiten den guztiaz jabetzeari, gauzak mekanikoki egin barik*”.



“Askotan, gauean egin behar ditut egun bateko errezu guztiak”

Mustafa Aitoukdim. Musulmana Zailtasunak nongura

Mustafa Aitoukdim orain dela lau urte ailegatu zen Euskal Herrira, Algortara hain zuzen, Marokoko sorterritik. Bidaian ekarri zituen gauzetako bat bere erlijioa zen, eta hemen ere eutsi egiten dio, ahal duen moduan: “*Musulmana naiz eta horrek esan gura du egunean bost bider egin behar dudala otoitz, Mekari begira beti. Nik ahal dudanean egiten dut, lanaren arabera. Askotan, gauean egin behar izaten ditut egun bateko otoitz guztiak*”.

Egunerokoaz gain, barikuan mezkitera joateko ohitura daukate musulmandarrek. Aitoukdim Bilbon dagoen batera joaten da, “*Algortan ez dago eta*”. Jateko okela ere Bilbon erosten du, hantxe daude-eta islamaren arabera hildako abereak saltzen dituzten harategiak. Ikus daitekeenez, Alaren jarraitzaile zintzoa da gure berbakidea: “*Nik ez dut alkoholik edaten eta ez dut txerrikirik jaten*”. Ez da erraza izango, bada, bertoko bizimodura egokitzea, batez ere Ramadan-a den honetan: “*Apur bat gogorra izaten da hemen, batez ere arratsaldeko zazpiak arte lan egin behar dutenentzat, baina tira, azkenean ondo moldatzen gara*”.

Gero eta gizarte agnostikoagoan bizi gara. Eliza, katolikoa noski, eliza da oraindik, eta erlijioaren aurkakoenek ere kristau esamolde eta ohiturak darabiltzate (halakoxea da jaso dugun kultura), baina ezin uka Pedroren ontziak garai hobeak ezagutu dituela. Horrez gain, badaude, gure artean, fededun bai baina katolikoak ez direnak. Arrazoi batengatik ala bestearengatik, beste sinismen bati heldu diote, eta ez berton nagusi denari. Euren bila joan gara, eta baita batzuk topatu ere. / Testuak: **Unai Brea** / Argazkiak: **Asier Mentxaka**

Jesús Hidalgo. Mormoia Kristau-kristauak

Jesús Hidalgo 59 urteko bilbotarra (Astrabuduan bizi da) Jesukristoren Azken Eguneako Santuen Elizako kidea da. Laburrago eta ulergarriago esanda, mormoia, izena desegokia ei den arren: “*Bibliari ez ezik, Mormonen liburuari ere jarraitzen diogu (gure profeta bat zen Mormon), eta hortik dator izen hori erabiltzea*”. Hidalgo orain 13 urte bihurtu zen mormoi, eta gaur egun Areetako adarraren presidentea da.

Mormoiak kristauak dira, baina ez dute eliza katolikoagaz bat egiten. “*Niri, egun batez, espirituak adierazi egin zidan hau dela benetako eliza*”, diosku Hidalgok, “*eta horregatik bataiatzea erabaki nuen*”. Mormoiak ez dira umetan bataiatzen, “*Jesukristo ere 30 urte zituela bataiatu zuten moduan*”. Izan ere, mormoiek Jesukristoren irakaspenei jarraitzen dietela aldarrikatzen dute, “*interpretazio okerrik gabe*”. Azken esaldian igar daitekeenez, eliza katolikoaren zilegitasuna zalantzan jartzen dute Utah-n jaio zen kristautasunaren adar honetako kideek.

Eguneroko bizimoduan hainbat gauza dakar mormoi izateak, Hidalgok azaldu digunez: “*Nire aldamenekoekin zintzo izatea, binaorik ez esatea, ez edatea, ez erretzea, edari berorik ez hartzea...*”. Ez da erraza, ez, gure gizarte honetan, mormoi izatea.



“Espirituak adierazi zidan hau dela benetako eliza”



oinez 2003

HARRIZ HERRI, IRUNBERRI



Ikastola berria eraikitzeko zure laguntza behar dugu

Caja Laboral-Euskadiko Kutxa: 3035 0058 35 0580077630
Caja Rural de Navarra: 3008 0042 51 1203795925
Caja Navarra-Nafarroako Kutxa: 2054 0041 86 9134923815
Santander Central Hispano: 0049 2572 24 2514210130
Kutxa: 2101 0381 05 0011331584



ASTRABUDUA

ESKUMALDEA



METRO LINEA 1

CARLOS TERREROS

Ibaizabalen eskumaldeko eguneroko bizitzak, bertan bizi diren lagunengatik eta euren ohiturengatik, kontraste handiak erakusten ditu. Azken urteotan asko eta arin doa aldatzen inguru hau, bai arlo ekonomikoan bai gizartekoan. Erandion amaiera begiztatu eta Getxon azken arnasa botatzen duen ur korronte uger eta liluragarri honen bazterrean bizi den gizartea biluzten du Carlos Terreros argazkilari gaztearen argazki proiektuak. Lan horren ale batzuk doazkizue orriotan.

[fotografia]



ERANDIO

LEIOA



ERANDIO



GETXOKO ANDRA MARI



ALGORTA



zineeskola

Oskar Fernández

Magia eta zientzia fikziozko filmak (I)

Gizartean hain arrakastatsuak izan ziren eta gaur egun inoiz baino gehiago hala diren zientzia fikziozko filmak zinema jaiotzearekin batera sortu ziren ia. Sorlekua Europan dute, beraz. Ondo dakigunez, 1895ko urtearen amaieran jaio zen zinema, Lumière anaien eskutik. Hasieran asmakizun honek errealitatea baino ez zuen irudikatzen, baina magoak eta ilusionistak berehala konturatu ziren zinema baliabide ikargarri aproposa zela truku berri eta ikusgarriagoak egiteko. Haien arteko gizon gazte bat ondo merezita sartu zen zinemaren historian, bere indarragatik, ahalmenagatik, adimenagatik eta irudimenagatik: Georges Méliès (1861-1938). Zinemaren aitzindari nagusia izan zen David W. Griffith-ek (1875-1948) berak Méliès-i dena sor ziola esan omen zuen. Méliès izan zen Lumière anaiek egin zuten lehenengo proiektzioen ikusle izateko zortea izan zuenetako bat. Berehala, asmakuntza berria bere antzokira -Robert Houdin- eraman nahi izan zuen, baina Lumière anaiek ez zioten asmakuntza saldu nahi izan, konpetentziaren beldurragatik. Georges Méliès-ek Britainia Handian erosi zuen filmatzeko kamara. Hasieran eguneroko bizitzako eszenak grabatu zituen, baina laster hasi zen kamara guztiz era berrian erabiltzen: trukuak, teknika berriak, maketak, argiztapena, antzeztoki bereziak, makillajea, jantziak, interpretazioa, aktoreak... arte berrian erabil zitekeen guztia eraman zuen Méliès handiak berak sorturiko Europako lehenengo estudiora. Han, berea zuen ingurunean, ia mugarik gabe garatzeko aukera izan zuen gizon honen irudimenak. Bostehun eta hiru film atera zituen mundura, eta ondorioz, efektu berezien aita dei diezaiokegu Georges Méliès-i. 4


ZINEBIren hitzordua

Bilboko Zinemaldian egongo diren zenbait film labur eta dokumental **Getxon** ikusgai

Bilboko Nazioarteko Laburmetraia eta Dokumentalaren Zinemaldiak (ZINEBI) 45. aldia beteko du aurton, eta hilaren 24tik 29ra bitartean iraungo du. Urtero legez, Getxon zinemaldi bilbotarraren zati bat ikusi ahal izango dugu: hilaren 24an eta 25ean, arrastiko 20:00etatik aurrera, izango dira, dohainik, 15en bat pelikulen emanaldiak Getxo Antzokian.

«Hilaren 24an eta 25ean izango dira emanaldiak Getxo Antzokian»

Aurtongo ZINEBI hazi eta eraberritu egin dela diote antolatzaileek. Izan ere, film laburren lehiaketari dagokionez, 79 herrialdetatik etorritako 1.945 pelikula jaso dituzte, aurreko urteetan baino baten batzuk gehiago; gainera, Ekialde Urruneraino heldu da, lehen aldiz, Bilboko Zinemaldiaren deialdia. Bestalde, dokumental luzeen aldeko apustua egin eta ZINEBIDOK atala sortu dute; lehen aldia izan arren, 31 herrialdetako 160 pelikula jaso dituzte. Atal berri honen bitartez, zine dokumentalak nazioarteko ikusleengan piztu duen interesaren lekuko izan gura dute, eta gaur egungo gizartearen liskarrak eta kezak islatzeko daukan gaitasunari



Andy Warhol agertzen da kartel iragarlean

ere omenaldia egin gura diote. ZINEBIren beste sailei dagokienez, berriz, musikalak eta animaziozko zine-emanaldi mardula egongo dira ikusgai Bilborock aretoan; oraingoan, zinemaldi-koek Kanadako ekoizpenak eskainiko dizkigute. Gainera, film asko aukeratu dituzte Zinema-Eskola izeneko atalean, eskola-umeen gozamenerako. m

Ez galdu > “Piano jolea”

Film hau euskaraz proiektatuko da azaroaren 26an, 20:00etan Getxo Antzokian (Euskararen Astea)



Arrakasta handia lortu zuen filma da, sari ugari jasoa: 2002ko Cannes-eko Nazioarteko Zinemaldian Urrezko Palmondoa, bai eta Hollywood-eko hiru Oskar: zuzendaririk hoberena, aktorearena eta gidoi egokituarena; bai eta Goya saria Europako filmik hoberena izateagatik, besteak beste. Lan honen atzean oso zuzendari ezaguna dago: Roman Polanski. Bai berak bai bere familia osoak Bigarren Mundu-Gerran lehertu ziren basakeria eta bortizkeria jasan behar izan zituzten. Istorio honek Wladyslaw Szpilman piano joleak idatzitako oroitzapenetan dauka oinarria. Guztiz narrazio ona du filmak, batez ere sarrerak: bertan oso erritmo egokiaz erakusten zaio ikusleari protagonistaren infernurako jaitsiera. Bikain antzezturik eta egokiturik dago istorioa, eta akatsik aipatzekotan, zertxo hau: epilogoak gehiegi luzatzen dela.

Daniel Carranza > Laute-jolea

Euskadin bakarra

Antzinako hari-instrumentuetan aditua den getxoztar honek **21 disko** kaleratu ditu

Gazte denboran, rockeroa zenean, gitarra jotzen zuen zenbait taldetan, baina orain dela 21 urte antzinako hari-instrumentuetarako (lautea, vihuela, tiorba eta gitarra barrokoa) interesa piztu zitzaion. *“Izan ere, 1750 urtera arte egin zen musika gustukoa nuen, antzinako musika izenekoa, alegia”*, diosku gaur egun 44 urte dauzkan Daniel Carranzak. Madrilen, Parisen, Suitzan, Holandan eta Frantzian egin zituen musika tresna horien ikasketak.

«Hilaren 17an kontzertu bat eskainiko du Euskalduna Jauregian»

Bakarka, bikoteka edo taldeka, guztira 21 disko kaleratu ditu, eta azkenengoa Mudéjar taldeagaz egin du: *“Hasi ginenetik seigarrena dugu, 'Al-Son' izenburua dauka, eta datorren hilabetean egongo da salgai”*. Carranza bost kontinenteetan barrena ibili da kontzertuak emoten; *“Mudéjar taldeak zale asko dauzka Ingalaterran eta Holandan, eta sarri deitzen gaituzte jotzeko”*. Bilbo, Euskadi, Galizia eta Valentziako zenbait orkestratan ere jardun du. Gainera, getxoztar honek Jubal izeneko diskoetxea dauka, eta Adolfo Marsillach zenak zuzendu zituen hiru antzezlanen musika idatzi zuen.

Daniel Carranza antzinako hari-instru-



Daniel Carranza lautea jotzen

mentuetan aditu bakarra dugu Euskadin, *“oraingoz behintzat”*, eta jorratzen duen estiloak badauka, antza, entzulerik: *“Batez ere, unibertsitateko gazteak dira”*. Instrumentu horiek XVIII. mendearen amaierarako desagertuta zeuden, *“beraz, erabiltzen ditudanak museoetan daudenen kopiak dira”*. Bere trebezia ikusteko aukera izango dugu hilaren 17an Bilboko Euskalduna Jauregian eskainiko duen kontzertuan; Vivaldiren *Lau Urtaroak* obra ezaguna joko du. m


diskoak

Life for rent
Dido
Arista Records



Markak hausten dabil Dido abeslariaren bigarren diskoa: salgai ipini zen lehen astean 225.000 ale saldu zituen Erresuma Batuan. Hainbat estilo nahasten dira 11 abesti dauzkan lan honetan, baina pop, rock, hip-hop eta dance doinuak dira nagusi. Rollo Armstrong nebaren laguntza-gaz, Dido-k eguneroko bizitzaren irudiak islatzen ditu.

Elephunk
Black eyed peas
Interscope Records



Primerako gertakaria izan da mundu osoan laukote honen hirugarren diskoa; *Where is the love* singleagaz (irailak 11ko atentatuen erantzuna), gutxik lortu dutena lortu dute: sei astez jarraian Erresuma Batuko lehen postuan egotea, hain zuzen. Los Angeleseko taldea dugu Black eyed peas, eta hip hop-a eta funky-a ezin hobeki uztartzen dituzte.

Bapatean
Seiurte
Metak



lazko Euskadi Gaztearen maketa lehiaketa irabazi ostean, Berrizko laukote honek lehen diskoa kaleratu du. Pop eta rock doinuek bat egiten dute bertan, talde berri batean ezohikoa den moduan, baina bai talde berri baten naturaltasunez, ordea. Guztira, harritzeko moduko 10 kanta eskaintzen dizkigu Seiurtek lan honetan.

esaterik**badut**

Esti Ezkerra


Egunerokoa (IX)

Krokodiloa ohe azpian

2003ko azaroa. Gasteizko kafetegi batean lotu naiz lagun batekin. Iritsi eta berehala, ohiko komentarioak. “Zer hotza egiten duen”. “Bai, negua gertu dagoen seinale”. “Dena den, Siberia-Gasteiz honetan tenperatura aldaketek ez dute erdibideko terminorik ezagutzen”. “Ez horixe”. Laranja zukua eskatu du berak. Nik betikoa, deskafeinatua makinakoa. Ez dakit zergatik, baina jendeari grazia egiten dio nire hautaketak. Egunen batean galdetu beharko diet zergatik den (nire pertsonalitatearekin bat ez datorrelako? Deskafeinatu hitzak ezkutuko konnotazioak dituelako?). Azkenaldian geure inguruan gertatutakoei heldu diegu jarraian. Eta kontu batzuen inguruan ezin harridura ezkutatu. “Baina nola da posible horretaz enteratu ez izana? X-ekin egon nintzen duela gutxi eta ez zidan ezer komentatu”. “Agian pasako zitzaion”. “Agian bai”. Begirada fidakaizak. “Eta horrela ez balitz? Nahita egin izan balu?”. “Orduan sekulako krokodiloa hazten ibiliko da ohe azpian”. Barre egin dugu konparazioarekin. “Hori otutzea ere!”. “Bada niri zer pentsatu eman dit ipuin horrek, zuri ez?”. “Egia esateko bai, buelta dezente eman dizkiot kontu horri”. “Eta ?”. “Nire krokodiloari zer gustatuko ote zaion ikertzen nabil”. “Nik baditut susmo batzuk...”. “Bai?”. “Lana galdu nuenean, handik gutxira koadro bat erosi nuen”. “Beraz, lagunengana jo beharrean koadro bat erosi zenuen?”. “Ez dakit, batzuetan zaila da besteei norberaren burutik pasatzen dena azaltzea”. “Tira, tira”. “Portzierto, zeu be krokodiloren bat hazten zabiltzala esan duzu...”. “Nire galdera da: gaur egun zeinek ez du horrelakorik?”.
Zorionak Mariasun. 4

Sari festa euskal idazleentzat

Pello **Lizarralde**k eta Fernando **Morillo**k jaso dituzte **Euskadi Literatur Sariak**



Ezkerretik eskumara, Pello Lizarralde, Fernando Morillo eta Mariasun Landa idazleak

Pello Lizarraldek (Zumarraga, 1956) eskuratu du euskaraz idatzitako lanen Euskadi Saria *Larrepetit* liburuarengatik; espetxetik ihesean doazen lagun biren abenturak eta haiei lagunduko dien hirugarren batenak kontatzen ditu. *Larrepetit* Erein argitaletxeak atera zuen, eta hasieratik oso harrera ona egin zion kritikak. Aurretik ere, Lizarralde lan oparoa egin du, 1978an lehenengo liburua *—Hilargiaren hotzikarak—* idatzi zuenetik.

Beragaz batera, Juan Kruz Igerabideren *Mailu isila*, Anjel Lertxundiren *Zorion perfektua*, Xabier Montoiaren *Baina bihotzak dio*, eta Karlos Linazasororen *Inoiz izan ez garenotan* izan dira sariketako finalistak; guztiak ere maila handiko liburuak. Haur

eta gazte literaturari dagokion Euskadi Saria, berriz, Fernando Morillok (Azpeitia, 1974) jasoko du, *Izar malkoak* lanarengatik. Gaztea izan arren, liburu asko idatzi ditu Morillok, bai eta beste hainbat sari lortu ere:

«Mariasun Landari, berriz, Espainiako Sari Nazionala emon diote»

Donostia Hiria, Bilbo Hiria eta CAF-Igartza literatur sorkuntzarako beka, besteak beste. Halaber, Mariasun Landaren *Krokodiloa ohe azpian* liburuarentzat izan da aipamen berezia; hau da, haur eta gazte literaturaren alorrean Espainiako Sari Nazionala irabazi berri duen lanarentzat, hain zuzen. m

liburuak



Behi eroak
Patxi Iturregi
Elkar

Haize kontra liburuagaz hainbat irakurle liluratu ostean, itsasotik hirira egin du idazle laudiotarrak. Era guztietakoak dira bilduma honetako hamabi ipuinak: dozena bat kontakizun eta beste horrenbeste mundu.



Txiki
Jon Zabalo Ballarín, *Txiki*
Gipuzkoako Foru Aldundia

Jon Zabalo Donostiako zenbait aldizkariren marrazkilaria izan zen. Bere lana erakusten duen liburu honetan karikaturak, kartelak, txisteak eta argazkiak ikus daitezke, baita euskal prentsa zelakoa zen *Txiki*-ren garaian ere.

UK marka >

Gehiegitan erabilia

Zenbait komunikabide daude eskualdean **UK laburdura** erabiltzen dutenak



UK izeneko komunikabideen logotipoak

Badirudi UK laburdura marka bihurtzen dabilela gurean; izan ere, Uribe Kostako telebista kate batek eta webgune bik izen hori daukate, baina jakinarazten dizuegu ez daukatela ezelako zerikusirik aldizkari honegaz. Uribe Kosta Telebista (UKtb) Sopelan ei dago eta 2000n sortu zen (ezin izan ditugu datuok baieztatu, ezinezkoa izan zaigu-eta telebistako norbaitegaz berba egitea). Albistegirik ez dauka, eta berezko programa bakarra 806 telefono zenbakia erabiltzen duen lehiaketa da, *Contrarreloj* izenekoak. Atzerriko kateakaz bat eginez betetzen dituzte orduak; gehienak Hego Amerikakoak dira, eta gauzez film pornografikoak botatzen dituzte.

Bestalde, Uribe Kostako egunkari digitala topa dezakegu internet-en, *www.ukdi-*

gitala.com helbidean; hainbat zerbitzuez gain, eskualdeko berriak eskaintzen ditu gehienbat. Baliteke zenbaki hau kaleratu orduko, UK Berri webgunea sarean egotea; izan ere, *www.ukberri.net* azaroaren 8an aurkeztu behar zuten. Albistegi digital honen esparrua Uribe Kostan sartzen diren herriak eta Leioako campusa dira. Euskara hutsean informatzeaz gain, eskualdeko euskaldunen arteko harremanak sendotu gura ditu; orrialde oso parte-hartzailea ere ei da, bisitariak berriak bidali, eta iruzkinak eta iradokizunak egin ditzakete-eta. m

Egunkariak prentsa eta aldizkariak

nahi izanez gero, etxera eramaten dizugu egunkaria!!!

Algortako etorbidea 78
T: 94 491 27 34

Ikusi >

Firin faran

Estepan Aldamiz-Etxebarria kazetariaren gidaritzapean, solasaldi atsegina eta patxadatsua ikus dezakegu martitzenero ETB1ean, 23:30etik aurrera. *Firin Faran* saioan ordubetez aritzen dira aurkezlea eta saioan parte hartzen duten solaskideak azken egunetako albisteei begira; euren ikuspegi eta iritzia abiapuntu izanda, berri adierazgarrienak sakon aztertzen dituzte. Aldamiz-Etxebarriaren berbetan, gaur egun solasaldi-saio asko dago telebistan, "*baina gehientsuenak prentsa arrosaren gainekoak dira; beraz, patxadazko solasaldi politikoak programazioan tokia badaukala uste dut*"

uhinakFM

Getxo Irratia	87.6
Radio Euskadi	92.4
Euskadi Gaztea	94.7
Bilbo Hiria Irratia	96.0
Tas-Tas Irratia	97.0
eitb irratia	100.1
Bizkaia Irratia	102.6
Koska Irratia	104.1
Euskadi Irratia	104.4
Pititako Irratia	107.0



aldizkaria etxean jaso nahi baduzu

94 491 13 37

UK Uribe Kostako Aldizkaria 171 posta kutxa
Arnautzi 6, 4. solairua 5. bulegoa / 48990 Getxo
ukaldizkaria@telefonica.net / tel.: 94 491 13 37 / faxa: 94 491 58 31

Gure espezieak >

Etxe-sagua



- **Izen generikoa:** Mus musculus
- **Izen arrunta:** Etxe-sagua
- **Berezitasunak:** 75-90 milimetrotako luzera; buztanak, 80-90 milimetro
- **Bizilekua:** Giza-guneetatik gertu

Askori izua edo nazka sortarazten dion karraskari hau ezagunago dugu gehienok "sagutxu" izenagaz. Kolorez grisaxka da, ilunagoa bizkarrean, eta argiagoa, berriz, sabelaldean. Etxe-sagua basokoa baino lirainagoa eta txikerragoa da; izan ere, txikerragoak dauzka belarriak eta atzeko oinak, eta kolorez ere desberdin. "Ratón moruno" izeneko saguagaz ere nahas dezakegu gure sagutxua, baina horrelakorik ez ei daukagu gure eskualdean.

«Kale-katu gutxiago dagoenez, sagu honen populazioak gora egin du»

Gizakia non, etxe-sagua han: gugandik oso hur aurkitzen du bizileku aproposa, eta hori dela eta, oso zabalduta dagoen espeziea dugu; beraz, ez da batere gatxa beragaz topo egitea: janari hondakin gozoz beteta dauden zakarrontzietara edo biltegieta hurreratu besterik ez dugu egin behar. Gainera, kale-katuak gutxiagora doazenetik, sagu mota honen populazioak gora egin du nabarmen.

Errota, baserri eta landetxeetan eraikitzen du lastozko, kotoizko edo goroldiozko habitxoa (egia esan, eskura daukan edozein gai erabiltzen du horretarako); eta hara joaten da erditzeko unean. Zelangura, ongiegi etorria ez den bisitari hau hiriko etxeetara ere erraz sartzen da, gure hoditeriak eta kableetako zuloak ate zabalak dira eta berarentzat. Giza guneetan badago denetarik jaten du; zelaietan berriz, gurago ditu zurtain freskoak, fruituak eta haziak.

Gaia > Garbibusa

Geldi ez dagoen eskola

Garbibusaren bitartez, **ingurumena** errespetatzen irakasten zaie Bizkaiko ikasleei

1997an, Bizkaiko Foru Aldundiak Ingurumen Heziketarako Gela Mugikorra sortzea erabaki zuen, “*gizarte modernoetan ingurumenari egiten zaion kalteagatik gizartearen sortzen den gero eta kezka handiagoa ikusita*”, bertako iturriek adierazi digutenez. Gela Mugikor horren izena Garbibus da beraz, eta helburu nagusitatzat dauka gazteenei ingurumenarekiko errespetuz jarduten irakastea.

«**Hiru gai jorratzen dira: hiriko hondakinak, ura eta energia**»

Izenak ez dio gezurrik: Garbibusa autobusa da, baina autobus berezi samarra. Barruan dauzkan bideo-pantalla erraldoiaren, zortzi ordenagailuen eta informazio-panelen bidez, umeei hiru gairen gaineko argibideak har ditzakete: ura, hirietako hondakinen kudeaketa eta erabiltzen ditugun energia motak, “*hain zuzen ere, gaur egun administrazioaren kezka iturri diren hiru gai*”, dioskue Aldundikoek.

Irailaren 23an eman zion hasiera Garbibusak ikasturte berriari, udan hainbat hondartza, aisialdi-talde eta kanpamen-

turi bisita egin ostean. Guztira, 300 ikastetxetako 20.000 bat ikasle (Lehen Hezkuntzakoak eta DBHkoak) bertatik igaroko direla iragarri dute ekimenaren arduradunek. Orain dela sei urte lehen pausuak eman zituenetik, 120.000 lagun inguruk erabili dute Garbibus. m



Garbibus, barrutik eta kanpotik



Basolanak

- Zuhaitzen landaketa
- Podak
- Itxierak
- Garbiketak
- Tratamendu fitosanitarioak

Lorategien zainketa

DEITU!

T. 94 467 17 13

F. 94 467 42 41

ERANDIO (Bizkaia)


Mobila

Asier: 629 411 838

e-posta: basolanak@terra.es

Patxi Ugalde > aktorea

“Francoren garaian antzerkian genbiltzanok politikarietan genbiltzan batez bere”



Patxi Ugalde injenierua da, karreraz behintzat

Patxi Ugalde bilbotarra jende gitxik gogoratzen duen baina beti antzeztokietan edo kamera aurrean ibili den aktore horietako bat da. **Daukazan 64 urteetan (hamabi inguru daroaz Getxon) hainbat modutan atara du bizimodua, baina sekula ez dio hutsik egin diru gitxi baina poztasun handiak emon dizkion benetako bokazioari. Hala, urte luzez aktore eta bikoizle jardun du umorea gainezka duen gizon honek.**

—Aktore modura aurkeztu beharko zaitut ba...

—Zer esango dotsut ba? Aktore izan guran. Bokazinoa bai, hori betikoa izan da, txiki-txikitatik. Batxilergoa amaitu orduko gure aitak galdetu eustan: “*Zuk zer izan gura dozu?*”. “*Nik, aktore*”. “*Zer aktore eta zer...*?”. Ez zen haserretu baina ezetz esan eban, eta besteren bat aukeratzeke. Azkenean, injenierutza, eta injenierua naz, karreraz behintzat.

—Eta ingeniari jardun duzu inoiz ?

—Sekulan bere ez. Badakizu zertarako erabili neban titulua? Lemoizko zentralaren garaian hitzaldiak emoteko, horren kontra jakina. Presentazinoak egiterakoan “*orain Patxi Ugaldek berba egingo dotsue, bera ingeniaria da...*”.

—Eta aktore lez atera dozu bizimodua? —Ez, irakasle ibili naz, hain zuzen bere injenierutza karrera egiten ebilen jendeagaz eta. Fisika, termodinamika... Baina hori aspaldi amaitu zan. Gero, ETB hasi zan garaian, bikoizketaren mundu bitxi

horretan sartu nintzan. Eta ondino tarte-ka ibiltzen naz.

—Hollywood-eko izar handiren bati ahotsa ipintzea egokitu zaizu?

—Ez, badakizu zergatik? Nire ahotsa ez dalako horretarako egokia, ahots zakarra dekot eta. Mozkortiarena, edo naziarena, edo drogazalearena egiteko, ondo. Besterako ez.

—Aktoretzan noiz hasi zinen?

—Karrera egiteaz batera, edo hobe esanda karrera ez egiteaz batera (matrikulatu

«**Txiki-txikitatik euki dot aktore bokazinoa**»

egiten nintzan, baina gero eskoletara joan ez). Francoren garaian, orain 45 urte. Antzerkian ibiltzen ginanok batez bere politikarietan ibiltzen ginan.

—Beti bokazino, inoiz ez lanbide...

—Hala da. Lan egiteko aukera bat euki, eta ha hartu. Antzerkian, batez bere, Mas-karada taldeagaz ibili naz. *Gernika* egin neban lehenengo, gero *Nerudaren Postaria*, *Ikaro*, eta orain *Konbat* (*beltza eta zakurrak borrokan*) egiten nabil.

—Zineman ere zeozer egin duzu...

—Bai, hainbat pelikulatan agertu naz. *Akelarre*, *Bandera baltza*, *Ke arteko egunak*, eta orain bi edo hiru edo lau urte, hemen Bilbon egindako *Astebete parkean*. Gero nik neuk ipini neutson neure pertsonajeari ahotsa euskaraz.

—Antonio Banderasen moduan...

—(Barre) Beste maila batean. Zoritxarrez, ekonomiaren ikuspegitik behintzat.

—Lan bila ibili behar da bigarren mailako aktore bat, ala deitzen dute?

—Nire kasuan behintzat etorri egin da, ni sekula ez naz ibili erreguka, eta gogorik bere ez dot horretarako. m

Gogoa >
Kokaina

Nagore Etxebarri psikologoa

Jakina da kokaina aspaldidanik erabiltzen dutela Ertamerikan eta Hegoamerikan. Bertokoek aspalditik mamurtu egin izan dute koka hostoa, kitzikagarri arin baten ondorioak lortzeko. Gaur egun, berriz, erreta (pasta eta base librea edo crack-a) zein sudurretik sartuta hartzen dute askok. Kokainaren ondorio fisikoak takikardia, begi niniak zabaltzea, arteria-presioa igotzea, izerdi edo hotzikarak, higuina edo gorakada eta ikusmen edo ukimenaren aluzinazioak izan daitezke.

Horretaz gain, zenbait desegokitze sortu ditzake kokainak: euforia, handitasun sentimendua, erne egotea, aztoramendu psikomotorea, erasokortasuna eta zentzumenen galera. Hasierako hirurak dira, hain zuzen, hartzaileek bilatzen dutena. Baina aipatu behar da kokainak duen tolerantzia dela eta, gero eta dosi handiagoak hartu behar direla ondorio horiek nabaritu ahal izateko.

Erretzen denean, kokainak oso azkar eragiten ditu aipatutako ondorioak, alkaloideek efektu psikoaktibo oso azkarrak ditzutelako. Gainera, horien ondoren datorren “beheraldia” gogorragoa da eta droga gehiago hartzeko gogoia eragiten du, menpekotasunera bultzatuz.

Kokainaren erabilerak eragiten dituen “beheraldietan” zein abstinentzian honoko ezaugarri hauek agertzen dira: disforia, (depresioa, suminkortasuna, barne herstura...), nekea, insommioa edo hipersommioa, aztoramen psikomotorea... eta egoera larrietan, deliriuma eta eldarniozko nahasketak.

Hala ere, ondorio horiek kokainarekin erraz saihestu daitezkeenez, droga honen erabiltzaileek menpekotasunerako joera handia daukate. 4

Gorputza > beherakoa
Zelan aurre egin?

Jose Mari Uribarri medikua

Denok dakigu beherakoa zer den: tripalak igarri eta arineketan komunera joateko beharra. Orduan, kaka likintxoia egin eta lasai geratzen gara. Baina beste sintoma batzuk ager daitezke laster: jateko gogorik eza, buruko mina, sukarra...

Egoera honen zergatia ez da bat-bakarra. Pozoin eta botika batzuek eragin aringarria dute; antibiotikoak hartu eta gero ere, batzuetan beherakoa agertzen da. Gauza arrunta da hau gertatzea, eta tratamendua geldiaraztera ere eraman gaitzake.

Elikagai batzuekiko alergiak ere behe-rakoa eragin dezake, ia beti jan eta ordu bi



«Beherakoa daukagunean, jateko egokiena arroz zuria da, olio barik eta gura den beste gatzagaz»

* Okerrak zuzenduz: UKren 50. zenbakian, tabakoak Espainian urtero 47 lagun hiltzen dituela esan zen. Okerreko datua da hori noski: ez dira 47, 47.000 baizik.

geroago: behi-esnea, arrautza, txokolatea, kakahuetea, tomatea, itsaskia, arraina edo fruituak izaten dira errudunak.

Baina askotan, janaria bakterioz kutsa-tuta egoten da. Udako giro epelean da arrisku hau handien; horregatik garrantzi handikoa da etxean egindako mahonesa, kremak, pastelak eta abarrak hozkailuan gordetzea. Salmonella da hortik datorren gaitz ezagunena.

Kasu batzuetan, bertako jendeari kalte-rik egiten ez dieten bakterioek urrundik etorritakoei beherakoa eragin diezaiekete. “Turistaren beherakoa” delako hori saiheste-ko, egosita dagoena baino ez da jan behar (entsaladarik ez), frutak zuritu egin behar dira, eta edateko, botilako ura har-tuko dugu beti.

Eta zer egin beherakoa datorrenean? Gehienetan, bi edo hiru egunez jaten du-guna zainduz gero, desagertu egingo dira bai nekea eta bai gainontzeko sintomak: bitarte-an, ura baino ez da edan behar, eta arroz zuria izango dugu jaki egokiena (olio barik eta gura den beste gatzagaz). Geroago, salda fideoakaz, patata eta azenario purea, jogurta eta arrain zuri egosia jan daitezke. m



Zenbat eta erabiliagoak izan, are eta gusturago janzten ditugu galtza bakeroak

jeans-a
Denborak ahultzen ez duen ikurra

Kanpai-formakoak, zuzenak, kolorezkoak, loredunak, tindatuak, patrikabakoak, bigarren eskukoak... Nork ez dauzka "bakero" batzuk armairuan? Orain dela 130 urte Levi Strauss alemaniarrak asmatutako galtzek gainditu egin dute moda mundua, ikur bat bihurtzeraino.

18 urte zeuzkan Levi Strauss-ek New Yorkera joan zenean dirua egiteko. Mo-da mundua goitik behera aldatuko zuen ideia bururatu zitzaion Levi etorkinari 1873an: urrea bilatzen zebiltzan meat-zarientzako galtza hauskaitzak egitea. 501 kodea zeramaten praka berriok (ge-

«Galtza bakeroek 130 urte bete dituzte sasoi betean»

roago marka horren modelorik salduena izango zen) eta Levi's izena ipini zien. Arrakastaren gakoa ehunean zegoen: Frantziako hegoaldetik inportatutako kotoia.

Idea hori oinarri hartuta, Strauss-ek denda ireki zuen; lehenik eta behin, familiako enpresa izan zen, eta denbo-rak aurrera egin ahala, inperio bat. Mende berriagaz, Levi Strauss & Co.k ozeanoa gurutzatu zuen salmenta ere-mua zabaltzeko, baina bakeroak ez ziren Europara ailegatu Bigarren Mundu-Ge-

rra piztu zen arte. Rock-and-rolla jaio zenean, 50. hamarkadan, gazteria berega-natu zuten, eta harrezkeroztik, jeans-ak bost kontinenteetako gazteen bigarren azala bihurtu dira: belaunaldi bat baino gehiagoren uniformea.

Gaur egun, eta adituek diotenez, 15 eta 25 urte bitarteko gazteek urtean galtza bakero bi erosten dituzte. Ez da harrit-zekoa, beraz, Levis munduko ehun-enpresarik handiena izatea: 88 lantegi eta urtero 6.000 milioi dolarreko salmentak dauzka. m



I

I aki

Bitxitegia

Ω

OMEGA AGENTZIA OFIZIALA

Villamonte T: 4302345

Algorta

moda gaztea opariak

IRATI

Torrene 2, ALGORTA
T • 94 491 12 71

Errotalde

ileapaindegia

HARTU TXANDA TELEFONOZI!!

T: 460 38 90

Errotalde 18A / ANDRA MARI, GETXO

GAVRKO

GIZONENTZA -
KO MODA

Telletxe 5
ALGORTA
T:

Mar a Jes s

ILEAPAINDEGIA ETA EDERGINTZA

Alangobarri 10
T: 4910821
ALGORTA

HARTU TXANDA

Basagoiti, 55 behea
T.: 94 460 09 62 / 66
Faxa: 94 460 0966
48990 ALGORTA
eginkor@euskalnet.net
www.inmoeginkor.com

OSAEIDE?HORTZ?KLINIKA
Arantza Etxebarria

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Periodontzia
PADI

Bidebarri 27, behea eskalera ALGORTA 94 94 430 76

Jose Unzurrunzaga Astigarraga

HORTZ?KLINIKA

Tel.& Faxe: 94 460 06 21
Andikoetxe 2, behea ezkerre
ALGORTA

01 SOPELNETs.L.

Jokoak sarean ¥
Txapelketak ¥ Internet ¥
Txat ¥ E-mail ¥ Lanak ¥
ordenagailuen salmenta
zerbitzu teknikoak
kontsumitzeko gaiak, zure
Zubigane, 5 - 48600 SOPELANA
e-mail: 01sopelnet@terra.es
www.geocities.com/sopelnet

% 94 676 00 62- Fax:94 676

irabazi UKrekin

Adi
lagun!

**sarrerak debalde**

UKra delitzen duten pertsonen artean
BINA sarrera zozketatuko dira

azaroak 14 ostirala:
SKALARIAK

azaroak 23 igandea:
GAZTEBI 2003:
JAZZANOVA & MARCOS VALE

deitu!
94 491 13 37

MUGI
FISIOTERAPIA ZENTRUA

x Tendinitis Esgintzeak
x Erreuma x Kiroleko

Lor ezazu Mugiren eskutik
ordu bateko
masai bat debaldeGaldera

zein urtetan
kaleratu zen
UKren 0. zenbakia?

94 491 13 37
aldizkaria@euskalnet.net

Mendieta 2, SOPELANA 48600

[sarean]

Beste gida bat martxan

Eusko Jaurlaritzak Interneten **kultur agenda**
sortu du: agenda **berria** baina ez ideia berria

Asteburuan zer egin jakin gabe gabil-
zanok badaukagu orain beste aukera
bat: Eusko Jaurlaritzak abian jarri duen
"Kultur Gida" (www.kulturgida.com).
Horren bidez, kontzertuen, antzerkien,
argitarapen berrien eta hainbat kultur
ekitaldiren berri jakin ahal izango da.

Idea ona da, baina ez berria: bage-
neukan gauza bertsua Sareko Argiak
egindako *gureagenda.com*-en, bai eta
Kulturweb.com-en. Hala ere, makina
bat webgunek agenda propioa sortzen
dute astero. Alferrikako lana, askoren
ustez, ahaleginak errepikatu baino ez
direlako egiten.

Gauzak horrela, Gari Araolaza eus-
kaltzaleak proposatu du agenda batera-



www.kulturgida.com

tua egitea, gero, webgune bakoitzak
informazio hori nahi bezala erakus-
dezan. Gehiago jakiteko: *sustatu.com* m

webgida

TXISTEAK
>www.jaiak.net

Nork bere buruari barre egitea
osasuntsua dela diote.
Cybereuskadi.com webgunean
berri serioak ezezik bromentzako
ere atala zabaldu dute, eta ber-
tan dauden kontakizun gehienak
euskaldunoi buruzkoak dira.
Algarak sortuko dizkizute?

SEXUALITATEA
>www.infosexualidad.com

Sexuari buruz guztia dakizula uste
duzu? Ez daukazula inolako irriki-
rik gauza berriak ikasteko? Beraz,
ez sartu webgune honetan.
Sexualitatearen inguruko hainbat
gai jorratzen dute oso modu argi
eta dotorean. Eskaintzen dituzten
zerbitzuen artean, bitxienetakoa,
hiru dimentsioko kamasutra:

**Sarean aurkitu dugu >
Gorputz margoztuak**

Internet-en irudi harrigarriak edo barregarriak topatzen baduzu, bidali UKra.
Interesgarrienak aldizkarian argitaratuko ditugu.
aldizkaria@euskalnet.net

ARGIAren MAHAI JOLASA

Zer egin lagunekin dibertitzeko? **Badakit!**

Zer egin mundua deskubritzeko? **Badakit!**

Zer egin etxekoeti ziria sartzeko? **Badakit!**

Zer egin ez aspertzeko? **Badakit!**

Galdera guztien erantzuna... Badakit!

MAHAI
badakit

JOLASA
1.800 galdera

2-36
jokalari

Adin guztietarako egokia
Bi zailtasun maila

SALMENTA PREZIOA

30€



Opari honekin asmatuko duzu
BADAKIT!

badakit badakit badakit
● NATURA ETA GEOGRAFIA
● TELEBISTA ETA IKUSKIZUNAK
● ARIKETAK
● KIROLA
● HIZKUNTZA ETA LITERATURA
● KULTURA



ESKAERAK: 943 37 15 45 (Argia)
denda@argia.com
Ohiko salmenta lekuetan

ARGIA

ALBE alerik ale

Asko sumatzen den hutsunea

Goizalde Atxutegi > sopeloztar ahots galduaren oihartzuna

Joan-etorri ugariko ALBEkidea, urratsez urrats bete zuen bertso-tarako bidea, eta azken jauzia emateko duela, sentitzen da bertsoz asea. Beti izan da neska zuhurra, baina bertsotan urruti du oraindik bere azken agurra!

Testua: Josu Arroyo
Argazkia: Asier Mentxaka

—Aspaldion zure arrastoa galduta daukagu. Nondik nora dabil Goizalde?
—Betikoa egiten ibili naiz (unibertsitatea, familia, lagunak...), beraz, ez daukat galduta egoteko aitzakia handirik. Hala ere, nahiz eta behin baino gehiagotan kantatzeko jubilazioa eskatzea ere pentsatu izan dudana, prest nago beti eskolak antolatutako ekitaldietan parte hartzeko, eta ahal dudana neurrian laguntzeko.

—Noiz ikusiko zaitugu plazan kantuan?
—Ez dakit sasoi luze batean “plazer” hori izango duzuen... Aspaldi ez dut kopla bat ere kantatzen. Hori bai, ALBEk antolatzen dituen saio gehienetan, erraz ikusiko nauczue. Eta ez pentsa oholtza gainean dauden horiek ez didaten inbidiarik ematen, eh!
—Ander Deuna ikastolan orain urte batzuk saio batean irabazle izan zinen. Zer izan zen hura?

—Bizkaiko Txapelketa Nagusia zela eta, girotze saioak antolatu ziren (Sopelan, Ander Deuna ikastolan, eta Leioan, Betiko ikastolan), inguruko bertsolari gazteei eta ez hain gazteei kantatzeko aukera emateko-edo. Saio horietan, en-



«Oholtza gainean dauden horiek inbidia ematen didate».

tzuleak epaile ziren aldi berean, eta agian hori zen berezitasunik politena. Nik Sopelako saioa irabazi nuen, baina ez dakit nire bertsoen mailagatik edo neukan “entxufeagatik” izan zen (sopeloztarra izanik...).

—Eskolako gaztetxoan taldean neskak dira nagusi. Zer deritzozu horri?

—Ederto iruditzen zait. Ni hasi nintzenean, hiru-lau baino ez geunden, eta gainera, oraingo batzuk entzun ditut bertsotan eta, egia esan, ederto egiten dute. Hala ere, nire ustez behintzat, ez ditugu neska izateagatik babestu behar; bertsoa gusta-

ERAKUSLEIHOA

- ▶ Goizalde Atxutegi Rodríguez.
- ▶ Sopelan jaio zen, 1983ko uztailaren 19an, eta Sopela du bizileku.
- ▶ Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza ikasten dabil.
- ▶ Bizkaiko Ikastolen Elkarteko begirale ikastaroa egiten ari da.
- ▶ Udalekuetan ere ibili da begirale.



HIRU LERROAN

NEURE IDOLOARI

Bertsotartzailea: **Goizalde Atxutegi**
Doinua: **8ko nagusiko edozein**

1

Nori eskaini bertso sorta hau,
nork merezi du, alegia?
Zaila egin zait aukeraketa,
aitortuko dut egia.
Urteak urte puntan dagoen
betiko bertsolaria;
baietz asmatu bere izena
berotu gabe gerria!

2

Gizon handi eta alaia dugu
Azpeitiako zekorra,
aldamenean izan ohi ditu
Egaña eta txokorra.
Ziria sartzen primerakoa
harria bezain gogorra,
duen ahotsaz bihur dezake
entzule adeitsu gorra.

3

Semea, aita eta aitona,
tanta, uhin ta itsaso.
Baina aita dugu, nire ustean,
ezagunena akaso.
Bizardun honek txapelketako
lehia faltsuari paso;
bertsozaleok gozatzen dugu,
plazan badago Lizaso!

“Bertsoa bota osteko sentsazioa izugarria da, eta hori lortzea niretzat gauza handia litzateke!”

tzen bazaie naturaltasunez egingo dute aurrera. Karteletako elementu exotiko izateari utzi behar diogu eta, azken finean, beraiek zehaztuko dute galdera honen iraungipen data.
—Zein litzateke bertsolari moduan zure ilusiorik handiena?
—Galdera hau orain bost urte egin baldin, txapelketa bat (eskolartekoa, adibidez) irabaztea erantzungo nukeen, dudarik gabe. Baina gaur egungo panorama ikusita, bertsoekin berriz ere gozatzearekin konformatuko nintzateke. Bertso biribila bota osteko sentsazio hori izauga-

rria da, eta hori lortzea niretzat gauza handia litzateke!

Goizalde ez du sekula gustuko izan gehiegi nabarmentzea, jendaurrean figura izatea, baina orain ezkor samar agertu arren, soberan erakutsi du baduela bertsotarako nibela, kalitatea. Bere bertso sortan bertsolari bati gorazarre egiten dio, eta momentuz horrekin konformatu beharko, ze erremedio! m

Bertso agenda gaurkotua:
www.albegetxo.net

BERTSOAGENDA

*PILOTA partidua
BERTSOZ jarraitua*

Azaroak 29, 19:00etan
Algortako San Nikolas plazan

Pilotariak:
Martin I eta II mallabiarrek vs
Etxebarria eta Erauskin arratiarrak
Bertsolariak:
Fredri Paia eta Etxahun Lekue

Tomas Abarrategi (III)

Gogoan edukiko duzu, irakurle, aurreko zenbakian Tomas Abarrategigaz egin genuen berbaldia. Idahon bizi izandakoaz egin genuen berba orduan. Amerikatik etorrita, harategi bat zabaldu zuen Berangoko Lantxarte auzoan, eta 30 bat urte eman ditu lanbide honetan. Denda txiki eta supermerkatu handien arteko konpetentziaren inguruan gauza interesgarriak kontatu zizkigun Tomasek.

Testua: Urtzi IglesiaErretatua: Asier Mentxaka

—Idahotik etorrita harategia zabaldu eta bertan egin duzu behar orain arte, ezta?

—Bai, neure haragitegin ein dot behar hota-maika urte ingerun. Hortxe izan da nire lana, oin nau prejubilata, ointxe retira nazala da hiru hillebete edo holan, ez gehiau. Hor pasa dot bixi gehiena beharren haragitegin.

—Bezero asko zenituen?

—Kliente asko euki dot, oin lo que pasa que Eroski ta Prica ta honek, ba, kontran dauz. Nik gero imiñi dot duztirik apur beten, frute, kontserbak, duztirik... tiretako. Claro, horrek hasi

denetik hona, askok itxi in dere, Berangon lehenau eon ziran bost karnizeri ta oin bi, ez dot pentsetan gehiau daunik. Ta dendak bere igual; ta Berangon modun, herri gehienetan. *Entre Prica, entre Eroski...* danak dire kontra-riok, pentsaten da ezetz, baia apurka-apurke... dau jenero bat klaru: aurek deke duztirik, handixek dire ta andrak doaze... ta gero dau beste jenero asko, gantxo asko iminten dez, merkeau dala; gero igual ez da merkeau, bai jenero batzuk bai dekez merkeau, por ejemplo coca-colak kamioiez hartzen dezen lez, ba guk baiño



fasilau eukiko de, ezta? Baia frute, berdure... fasil konpetiten dogu; lo que pasa que han daun lez duzti, ez de yon behar denda batera edo bestera, ta horrek kontra asko iten dau. Lehen denda danak eta karnizerik eta duztiok ondo arregla gare, eh? Duztiontzat eon da beharra sobrante; ta oin, akabun, ba duztiontzat falta. Batzuk suerte apur beteaz... Neskato bateri emontzat segiduen, ta aurrera doa baia asko in behar da peleatu, ezpabere ez dao zeregiñik. Txakur handik txikerra jaten dau. Hara etorten dire [harategira], haragi apur bet edo ahiztuten badake berdure o frute. Frute bastante saltzen dot, baie inpuestuk bere handik dire ta diru asko martxaten deu. Ta ukusten

“Soloatik yaten da, fabrikatik atako dire erramintak, baia erramintak ezin dira yan, eh?”

dozu jaisten dala bentea. Aguantatzen dozu baie asko peleata; prezioak bajatu, sartu jenero gehiau... Ni hasten nintzan goizeko zazpitan eta askotan ematen neun gaueko hamarrak arte, hara yon, frute, beste bille... lo que pasa que da zeure beharra, ezta? Ta ez dozu itxiten. Nik ez naun pentsa sekule hainbeste ingo eus-tela kalte, ze nik ordun behar zenbat gure euki neun, urtek geroau berebai baia apurka-apurka yon naz galtzen, baia aguinta in dot hor; baia ez esateko negozio bat dala, ez da negozio bat, ze asko inbertidu behar da; baia behin iminten badozu ba ze ingo dot, saltzen badot iñok ez dau gure... ta aguinta iten dozu, baie ez mon-tatako barriro, ezegatik bez. Herri beten zauze-na bakarrik dendak, hor bai.

—Nondik ekartzen zenuen haragia?

—Lehen Algortan eiten osten ganadua, gero Leioan, gero Bilboan, ta gero akabun hartzen

neun matadero bat Bilbon dauna; kanpoti ekarten de okele. Baie neuk begiten dot ia zelau dan, ze barruti igerten dako zer dan. Bildotsak eta horrek hemen ya ez dao duztiontzako, ade-mas hemengo errebañu gehienak Eroskik eta hartzen dauz. Hori be da beste bat; ekartzen dauz Frantziti... ta iminten dez prezioak hemeko artzaiñak saltzen daun baiño merke-au, ez delako jenero ona. Pero ez dait zelan hartzen de, ze Frantzik eta Alemaniak, Inglaterrak hemen baiño nibel altuau deke; zelan ekarri merkeau? Zeozer dao hor ez dauna garbi, zu bazoaz hara, ta han dauz hemen baiño karuau, ta eurek hartu handik ta dauz merke, zelan da hori? Horrek deko esplikaziño bat: txikerra duztik elimina ta aurek imiño gero gero prezio. Lagun batek esausten: “Jo, ez dot yakin zelan haragitegi euki dozun, bakizu ze in dosten? Hogetamar hogerleko paga doste kilo”. Badau deretxorik? Hogetamar hogerleko ez da auro bat bere, eh? Eta gitxienez balioko ditu lau auro pikun bueltan erosilekun. Badau deretxorik hori pagateko? Makailluk bez, ze makaillu, makailluk eskandalu balio dau ta, es que ez dau horren prezion ezebere. Gurau dot erregala, hazi baiño lelau. Zer pasaten da, ba kanpon egon dan jentea, aldeanuk dauzenak beharren, ba zekor bat hazi etzean ta diru apur bet irabazi; baia oin ezin da irabazi, ze badator Prica ta: “Bai, erongotzuez baia neuk imiñiko dot prezio, zuk ez”; imintzen dotzu berak pre-zio ta zuk ein dozun behar ezetako berez. Asko aporta behar dozu diru, igual badekozuz hoge i zekor, baia igual bi desgrazia iten datzu, hil edo gaixotu; pentsua... ta gero galduten badozu behar einte osten! Ta claro, zeaitik saldu in behar dozu? Ez dekozulako nori saldu, ze danak elimina derez, aurek aginten de.

—Eta zer pasa leiteke?

—Baserri danak tunbako derez, ez bakarrik haragitegik, baserrik bere bai. Ta soloatik yaten da, fabrikatik atako dire erramintak, baia erra-mintak ezin dire yan, eh? Lurretik atara in behar dire indabak, patatak... duztik. Kanpotik ekarri? Oin igual ixango da erosoau baie allegako da momentue kanpoko kobra-kotzuna askoz be gehiau, ta gero ez dozu euki-ko jente lanerako. m

Gurberbake3e0

BERBA JATOR BATZUK (VI)

Testua: **Xabi Bilbao**

Berbakere 27n gure izenondo edo adjektibo batzuk ikusi genduzen, gure parajeko euskeran gauzak eta pertsonak ZELAU(K) –Zelako(ak)– direzen esateko erabilten direzenak. Gaur horregaz kontugez segiduko dogu apur bet. Hemen doaz, ba, beste izenondo batzuk:

• **ago txarreko:** (edo **ao txarreko**) berbeta motza dekonari esaten dako.

—Bihotz oneko da hori mutille, baia *ago txarreko* da, eta bildurre kóixten dautze dának.

• **akabuko:** Hau berbe ondo ezetuten dozue UK-ko ataltxu hau leduten dozuenak. Honen kontrako *léhenengo* edo *léhelengo* da.

—Jangoikok egin eun *léhelengo* gauze argi ixen ei zan, eta *akabuko*, Extremadura. Hálan diño Robe kantarik.

Honek berba biok adizlagun (adberbio) lez bere erabilten direz sarri:

—*Akabuko* urten dau baia *léhelengo* heldu da: badeko méritu horrek karrerístek.

• **alogereko:** soldata bategaitik behar egiten dauneri esaten dako.

—Atxiñe bàserritar asko *alogerékok* íxeten ziren: bésten lúrrrek lántzen eudezen, *alogeren*.

• **amazulo:** beti amágaz gure daun umeri esaten dako *amazulo*. Eta beti aiteaz gure dauneri, *aitezulo*.

—Txikerratan ondo *amazulo* ixen zan Jokin, baia nok ezetu oiñ, etxera étorteko prisik ezteko.

• **andánabako:** ganorarik ez dekona. Kontrako esateko berba bat *fiñ* (*fiñe*) da.

—Hónek *andánabakok* beharren páraten dirézenen nahiko *fiñek* direz gero: nok pentza hain aldizkaritxu politxe íteko kapaz ixengo zírela. —Ta gánera hemen bere, aldizkariko buru nor ixen eta *andánabakotan andánabakoena*.

• **antojagarri:** *antoju* (nazka) emoten dauneri esaten dako.

—Anthony Hopkins aktore hori artista ona íxengo da, baia jente askori *antojagarri* iten (egiten) dako.



gaizka escudero / villabotas-ekoa

Penka beteak

*boletus perretxikoekin
eta Idiazabal saltsan*

Perretxikoen sasoi bete betean gaude. Hamaika eratarata eginda ere, gozoak dira beti. Izan ere, sasoiak sasoikoa jatea izaten da ego-kiena beti. Lehenengo saltsa egingo dugu: hasteko, ipini sutan porrua ondo txikitua, gero koñak txorrotada bota eta flanbeatu. Ondoren, Idiazabal gaztaia –ahal dela birrindua– eta esnegaia gehitu. Saltsa loditsu bat lortu arte su ahulean eduki. Bestetik, penkak egosi (denboraz estu bagabiltza kontserban saltzen diren horietakoak erabili: Gutarra e.a.). Boletusak su ahulean, laminetan zatituak eta oliba olio-tan bigundu arte egin. Hauekin penkak bete, eta gero albardatu. Egin eta gero, aurrez prestatu dugun saltsa bota gainetik. On egin! ^m

osagaiak

*perretxikoak • Idiazabal gaztaia • penkak • esnegaina
koñaka • porru bat • arrautza • irina • gaza • piperrmina*



itsaso arana / jolastoki-koa

Galderak

*ardoei buruz egiten ausartzen
ez garen galderak*

- 1. Arrainekin ardo beltza edan daiteke?**
Arrain urdina bada, oso ondo doakio ardo beltza. Beltza bakailao, erreboiloarekin eta saltsan kozinatutako arrainekin oso ondo doa. Ardo beltz hauek arinak, gorputz gutxikoak eta gazteak izan behar dute.
- 2. Ardoa denbora pasatu ahala hobetu egiten da?**
Ardoa etengabe aldatzen ari da. Hobera edo txarrerara egin dezake. Denbora igarotzen den neurrian, samurtasuna eta espezien aromak gehiago azaltzen dira; mahatsaren ezaugarriak eta lurraren sena, berriz, galduz doaz.
- 3. Ardoak bidaiekin txarrerara jotzen du?**
Gaur egun, ardoak edozein bidaia gainditzeko prestatuak daude. Bidaia baten ondoren 10 egun itxaron behar dira ardoak bere onera itzultzeko.
- 4. Ardo zuriak urteen poderioz txarrago jartzen dira?**
Egurretan egindako ardo zuriak bost urte igaro ondoren hobetzen dira. Egurretan fermentatutako ardo txuriak bi urte igaro ondoren hobetzen dira.
- 5. Ardo gorriak hasiberrientzako ardoak baino ez dira?**
Ezta pentsatu ere! Kontua da ardo hauetan sorterriko mahatsaren kalitatea ez dela aintzat hartzen. Ardo mota honetan freskotasuna, gaztetasuna eta fruta zaporea izatea estimatzen dira.
- 6. Mahats beltzen mustioa beltza da?**
Mahats zurien kolore bera du. Ardoaren kolorea mahatsaren azalak ematen du. ^m

Txindor kafetegia barra txikia pintxoaz josia



Lau urte daroaz Oskar Oleak Txindor tabernan beharrean

Sopelako kalerik garrantzitsuenan da-go Txindor taberna txikia eta dotorea. Herrian sona handikoa da Txindor, ireki-ta denbora luzeen daroenetakoa da eta; hori bai, “*orain urte dezente Flito’s izena zeukan eta pub bat zen, ez pintxo taberna*”, diosku gaur egun barraz arduratzen den Oskar Oleak. Hala ere, kontu zaharrak dira horiek, eta bada denbora luzea Txin-dor kafetegi bihurtu zela.

Olea azken lau urteotan egon da Txindorreko barra zuzentzen. Sukaldean, pintxoak egiten, Pili arreba egoten da gehienetan. “*Denetarik daukagu*”, azaldu digu Oleak, “*hainbat tortilla mota (egune-ro hiru desberdin egiten ditugu), perretxi-*

ko-nahaskia, txahalki otarteko txikiak, ur-daiaspiko eta piper otartekoak... Betiko pintxo arruntak ere bai, noski”.

Arrakasta gehien daukatenen artean, Oskar Oleak espinaka-tortilla, hanburge-sa txikia, olagarro eta makailao anoa eta barrengorriak aipatu dizkigu. Horrez gain, “*patata anoak ematen ditugu, bai patata minak eta bai all i oli erara presta-tutakoak ere*”. Hori dena topatzeko auke-ra goizeko zazpietatik gauko hamabiak arte daukazu. Baina arin ibili, pintxo guz-tiak amaitzea ez baduzu gura! ^m

TXINDOR KAFETEGIA
Akilino Arriola, 4, Sopela
Telefona: 94 676 05 41



Asado r



- ¥ Zabalik egunero
 - ¥ Eguneroko menuak
 - ¥ Enpresa menuak
 - ¥ Menuak norberaren gustura
 - ¥ Egunero karta berezia
 - ¥ Gazez dastatzeko menua astelehenetik ostegunera
 - ¥ Jaun hartze bazkariak
- Aretxondo 14**
Algortako Portu Zaharra / Getxo
Erreserbak: 94 491 25 93

TXIKI-AUNDI KAFETEGIA
ezagutzen al duzu?
herriko pintxorik onenak ditugu etorri eta probatu!!
Amezti, 10 / T: 94 460 57 57 - ALGORTA

Norte jatetxea

adituak gara makailo eta kazolatxoak prestatzen

Bilbo-Plentzia errepidea
Elexalde 9, Barrika - Tlf-94 677 30 09

Zurikaldai

JOKIN GARATE BAYO KIMETZ GARATE AZURMENDI
Neguriko Etorbidea 9 Aingeruaren etorb. 4B
T: 491 14 87 (sarrera, Jata Mendia) T: 460 01 87
48990 NEGURI 48990 GETXO

zure **publizitatea** hemen

UK **94 491 13 37**



prentsa ¥ aldizkariak
GETXOKO KIROL PORTUA
Arriluze z/g • Tel.& Fax: 94 491 53 21
ALGORTA • GETXO

BATIZ KRISTALDEGIA



- BIDRIERAK
- GRABATUAK AREA TEKNIKAREKIN
- IZPILU ERRALDOIAK
- INSTALAZIO OROKORRAK
- FUSIN

Illeta z/g (Sarrikobasoerikin bat)
T:94 430 69 42 /ALGORTA

EREAGA

Bidaia
Autobusak

T: 94 453 08 16 - 609 405 988
Faxa: 94 453 33 34
GETXO


OLATXO

altzariak
dekorazio-opariak

Andres Larrazabal, 11
AREETA
T. : 94 464 89 94

Juan Bautista Zabala, 5
ALGORTA
T. : 94 491 13 94

VILLABOTAS JATETXEA



Menu merke eta bariatuak
Especialitateen karta
Giro atsegina

T: 430 43 33
Villaondoeta 2, ALGORTA

[horoskopoa]

URA



(Abenduak 21 urtarrilak 19)
Zure gorputzak kirola eskatzen dizu, gogortuta zaude-eta: eskilara bi igo eta ito egiten zara. Kontua ez da egunero gimnasioan sartuta egotea, baina behintzat mugi itazazu tarteak hezurrak, guztiz herdoildu baino lehen.

OTSOA



(Urtarrilak 20 otsailak 18)
Zure bihotzak dituen pena horiek guztiak laster sendatuko zaizkizu. Adi egon, ezustekoa izan dezakezulako egun gutxi barru. Aspaldian espero zenuen "hori" beteko al zaizu? Baliteke, baina batek daki!

ADARRA



(Otsailak 19 martxoak 20)
Joan zen asteburuan futbol partidua ikustera joan zinen eta oraindik eztarria urratuta daukazu. Hori gutxi balitz, atsekabea ez zaizu oraindik pasa zure bihotzeko taldeak galdu zuelako. Futbola baino ez da! Ahaztu ezazu bebingoz.

AITZURRA



(Martxoak 21 apirilak 19)
Ez ezazu lana etxera eroan, horrek zoratu egingo zaitu-eta. Lana eta zeure bizitza bereizten ikasi beharko zenuke. Lana lanean, eta lanetik kanpo... Zer da hori? Har ezazu denbora gehiago zuretzako eta zure inguruan dauden lagunentzako.

HOSTOA



(Apirilak 20 maiatzak 19)
Zuk jakin ez arren, hor, zure alboan, badaukazu norbait ezkutuan begiratzen zaituena. Zuk uste baino gertuago duzu pertsona hori. Bera ez da oso ausarta, beraz, begiak ondo zabaldu eta emaitza bultzadatzeko.

EGUZKIA



(Maiatzak 20 ekainak 18)
Bihotza taupa-taupa daukazu, jo eta ke, inoiz baino indartsuago. Lasai, ez zaizu ezer txarrik gertatzen. Amodioa horrelakoa da. Baina egin ezazu ahalegintxo eta gerturatu zaitez hain gustokoa duzun pertsona horrengana. Merez du eta.

GARIA



(Ekainak 19 uztailak 18)
Gorputzean sartuta duzun tristura hori zerk sendatuko dizun? Astrologoak gara eta ez medikuak, baina egin ezazu parrandaxo bat lagunekin, aspaldiko partez bada ere! Noiztrik ez duzu kalea zapaldu asteburu iluntzean? Bada garaia, ezta?

LASTOA



(Uztailak 19 abuztuak 17)
Ardura potoloa duzu lepo gainean eta horrek egonezina sortzen dizu. Normala da, baina egon zaitez lasai, denborak lagunduko dizu eta. Emaiozu zeure buruari pare bat hilabete eta gauzak bere onera itzuliko dira.

IRATZEA



(Abuztuak 18 irailak 16)
Gabonetako oporretan pentsatzen? Inork baino gehiago behar dituzu zuk oporrak. Estresatu samar zabilta lanean eta etxearen epeltasuna behar du zure gorputzak, bai horixe! Lasai, hori ere helduko da eta.

HAZIA



(Urriak 17 azaroak 15)
Zure bikotekideagaz egun erromantiko eta ederrak biziko dituzu. Arrosa koloreak inguratzen zaituzte eta ezia baino goxoago zabilzate. Eutsi horri, esku artetik ihes egin baino lehen.

NEGUA



(Azaroak 16 abenduak 20)
Hainbeste kostata lortu duzun horri eutsi gogor! Zuk zeuk bakarrik dakizu zelako lan gogorra egin behar izan duzun dakizun hori eskuratzeko, eta orain daukazu gozatzeko momentua. Egindako lanak merezi izan du, eta beraz, aurrera!



mungia

oKINDegia


Algortan badaukagu
artisaunen ogia
izen eta jatorriz
da “ogi mungia”.

Goizero lortzen dogu
obispoen guleria
probatu bada edo ez
dan benetako egia.

KASUNE 28 - T: 94 430 10 76
ALGORTA



HITZ GURUTZATU



Taula honek hamar beltzune ditu.

Ezker eskuin

1. Gazteen nolakotasun. 2. Lege. Iragan. 3. Zarrapoa, atzamar-ka. 4. Saltaileak, traizio egileak. 5. Interjekzioa. Ekialde Hur-bileko estatua. Bat. 6. Gai optiko. Potasioaren sinbolo kimikoa. Jupiterren satelite. 7. Arrainak erakusten diren lekuak. 8. Har ezan. (Errep.) Atean jotzearen onomatopeia. Zutik. 9. Joan den urtean. Erotu. 10. Kui. Luzatu aditzaren infinitiboa.

Goitik behera

1. Gaztelako hizkuntza, espai-niera ere deitua. 2. Bitarte-kariak. 3. Zaude. Letra gre-koa. Zaren hori. 4. Bidaia-riak. Röntgen. 5. Bokala. Aditzera eman. 6. Indonesiaren men-peko herria. Isildu! 7. Biz-kaieraz, ageriko. Rutenioa. 8. Pilotan, tantoaren hasiera. La-rru. 9. Behiaren arbasoa. Ukitu. 10. Hari, noa. Istua, listua.

Soluzioak

V	U	L	U	I	R	I	A	K	V
U	T	V	O	Z	Z	V	I	A	I
T	U	Z	X	A	K	O	N	A	N
K	V	O	I	R	V	N	K	V	A
O	I	K	E	T	N	E	L	E	T
I	V	A	R	I	S	I	R	A	V
K	V	E	R	O	D	I	V	A	T
V	O	K	I	M	A	V	A	R	Z
O	V	A	R	I	G	V	A	R	V
N	V	S	T	E	T	Z	V	A	G




eUSKĀLDUNON
denbora-pasa eta
hitz jokoan hilabetekaria

IZAN ZAITEZ HARPIDEDUN 12 ale urtean 30 €

IZEN-DEITURAK
 HELBIDEA
 HIRIA
 LURRALDEA P.K.
 TEL. E-MAILUA
 KONTU KORRONTEA:.....

LUMA Aldizkaria, BAGABIGA S.L., 307. Posta Kutxatila 20300 IRUN
 Tel. 943629564 - 943630883 / E-MAILUA: luma@xedera.com



www.xedera.com

asmatu eta irabazi > bi lagunentzako bazkari bat



Nor da?

- Usurbilen jaio zen, eta ahots garbia eta erakargarria dauka
- Haizea taldea, Pascal Gaigne eta Txomin Artolagaz abestu du
- Iaz laugarren diskoa kaleratu zuen bakarlari moduan: *Haatik*

> Aurrekoaren erantzuna: Jorge Fernández

> Irabazlea: **Josu Borja ***

*deitu telefonoz goizez: 94 491 13 37

*Bidali erantzuna eta zure izen-deiturak, asmatzen duzuenon artean
bi lagunentzako menu berezia zozketatuko dugu:*

UK Uribe Kostako Aldizkaria. 171 posta kutxa 48990 Getxo
aldizkaria@euskalnet.net / faxa: 94 491 58 31

Gardoki Jatetxea



Mendieta kalea 47

Sopela

Telf. erreserbak: 94 676 07 61
 astelehenetan itxita



SOPELAKO ANDER DEUNA IKASTOLAK UTZITAKO ARGAZKIA

Unai Brea

Ander Deuna ikastola, 1981

Sasoia gaz bat ez datorren arren, Agate Deunako erretratu bat ekarri dugu oraingoan Flashback atal honetara. Ohitura izan da aspaldidanik Sopolako Ander Deuna ikastolako umeek Agate Deunaren bertsoak abestea; horietako momentu bat jasotzen du goiko erretratuak, makilek salatzen dutenez. Marisa Díaz ikastolako irakasleak utzi digu argazkia, eta gainera hainbat argibide ere eman digu: kontatu digunez, ohitura zen (ez dakigu hala jarraitzen duen) Agate Deuna bezperan hiru bertso abestea ikastolan, eta ostean herrira abiatzea, kantuagaz segitzera, eta jakina, dirua eskatzera. Diru hori, gero, ikastolarako zen. Irudiko mutikoak orduko OHOk 3. mailakoak ziren; ez dakigu, ordea, irudia Sopolara joan aurretik edo handik etorri ondoren eginda dagoen. Baina berdin dio, ezta? m

Aurrean, makurtuta, ezkerretik eskumara: Ricardo Ibarra, Enrique Artolozaga, Loitzun Gallastegi, Mikel García, Garikoitz Jauregi.

Atzean, zutunik, ezkerretik eskumara: Oier Duñabeitia, Asier Nikolas (atzerago), Iñigo Armendariz, Aitor Oiarbide, Ugutz Rotaetxe (atzerago), Joseba García, Galder Izaola, Asier Arroyuelo, Jon Mikel Bilbao.

*** Oharra:** aldizkarian argitaratzeko argazki zaharrik badaukazu, jarri zaitetz mesedez UKrekin harremanean: 94 491 13 37

[aitormenak]

ILASKI SERRANO > kazetaria

“Ondo konponduten
naz neure buruagaz”



Zure izaera definitzen duen ezaugarriren bat...
Baikortasuna. Momentu onak aprobetxaten eta baloratzen badakit, eta txarrak datozenean pentsaten dot urtenbide bat egongo dala. Batzutan apur bat ilun eta triste egoten naz, baina ez daust irauten asko. Hori berezkoa dekot.

Zein da zure akats edo maniarik nabarmenena?
Horrenbeste dagoz, kar, kar... Ez, egia esan, neure buruagaz nahiko ondo konponduten naz.

Zure haurtzaroko oroitzapen bat...
Neure amama biak. Umetan asko egoten nintzen eurakaz.

Zer da jarraitzaile batek esan dizun gauzarik ederrena?
Batek bialdu eusten bonboi kaxa bat irratira, “*entzun dodan ahots gozoenarentzat*”, eta ilusiño egin eusten. Beste baten, irratira botaten diren mezu anonimoetan, batek esan eban bizkaieraz egiten nebanean bero-bero paraten zala.

Zein da zure libururik gogokoena?
Liburu berezi bat dago, unibertsitatean ezagutu nebana: *La casa de los espíritus*, Isabel Allenderena. Apalean hiru ale dekodaz, gero eta ediziño hobea topa eta ha erosi, holan egin dot. Poltsikokoa dekot, beste bat normala, beste bat tapa lodikoa... Hiru bider irakurri dot.

Abestirik gustukoena?
Momentu bakotxak abesti bat merezi dau. Eguzkia dagoenean abesti bat, euria dagoenean beste bat...

Eta film bat?
Horrenbeste dagoz! Ricardo Darínen jarraitzaile naz, eta *Kamchatka* gustaten dast asko.

Zein lelogaz egiten duzu bat?
(Luze pentsatu ostein) Lelorik nire inguruan ez, mesedez! (Barre)

Zerk ematen dizu beldurra?
Heriotzak, neure buruaren jabe ez izateak, gaixotasunen batek... Neure kontrolpetik kanpo geratzen diran gauzak.

Eta zerk egiten zaitu zoriontsu?
Ez dakit ba, momentu baten eguzki-izpi bat izan leike, beste baten laztan bat, edo mosu bat... Hainbeste gauza! m

ILASKI SERRANO— Bermeotar petoa dugu Ilaski, baina aitortzen duenez, “*azken aldion ez naz ibilten asko-rik herritik*”. Lanpetu samar daukagu hogeitazazpi urteko neska alai hau, kazetaritza ikasketak amaitu eta buru-belarri EITBn sartu zena. Lehenik Euskadi Gaztean ibili zen,1997an, eta han jarraitzen du oraindik ere. Gero, 2000. urtean, telebistak bere aurpegia ezagutzeko aukera eman zigun. *KTM* gazteentzako saiotik *Betimu* umeentzako karaokera egin zuen salto, eta orain *Kuxkuxeroak* zoroaren aurkezle dabil umore handiz hartu gaituen Ilaski Serrano. Lanetik kanpo, kontzertuetara joatea eta zinema ditu gustuko, azken boladan horretarako denbora lar ez daukan arren.

GETXOKO EUSKARAREN V. JARDUNALDIEN BARRUAN

AZAROA
23
DOMEKA

III. AEROBIC
MARATOIA EUSKARAZ

spinning erakusketa | capoeira erakusketa | DJa zuzenean
17:00etatik aurrera ** GETXOKO ANDRAMARI KIROLDEGIAN

ANTOLATZAILEA



LAGUNTZAILEAK



Bizkaiko Foru
Aldundia
Kultur Sola
Diputación Foral
de Bizkaia
Departamento de Cultura



berria

